



ARGIA



KRISI POLITIKOA PERUN

Arrazakeria eta lurren lapurreta, haserrearen oinarri

12-17. orrialdeak



**Bertako erle
beltza hibridoen
mehatxupean**

26 | INGIURUMENA



**“Gaztelaniazko medio
handienei abantaila
eman die Jaurlaritzak”**

34 | IGOR ASTIBIA



Sagarrondotik
Sagardoaren
kulturaz gehigarria

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #281

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



LURRA ETA ASKATASUNA

GURE BEHARREN ASETZEA, GEURE GAIN

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 23 | ASIER BLAS MENDOZA
- 24 | SONIA GONZÁLEZ
- 25 | ANE LABAKA
- 25 | LEIRE NARBAIZA
- 26 | KIMETZ ARANA

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
ARRATE RODRIGUEZ
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU



AZALEKO ARGAZKIA: ALDAIR MEJÍA (EFE)

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



28 | BERTAKO ERLE BELTZA

Liztor asiarraz asko hitz egiten da, baina badu bertako erleak biziraupenerako beste arazo larri bat: globalizazioa. Egun, erlezain berriek Internetez erosten dituzte erleak eta honek ekarri du bertako espeziearen hibridazioa eta galera. Garazi Zabaletak azaldu du gaia, Erle Beltz Hazleen Elkarte kide Egoitz Galartzaeren eskutik.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Peruko hegoalde pobreak lurra du aldarrikatzen eta egurra du jasotzen

Urko Apaolaza

18 | PERTSONAIA | MAIALEN DIAZ

“Beste mundu bat errealitate bihurtzeko, lehenago imajinatu behar dugu, hori ematen digu antzerkiak”

Rreyes Ilintxeta

34 | KAZETARITZA | IGOR ASTIBIA

“Euskarazko hedabideak ez daude Jaurilaritzaren lehentasunetan”

Mikel Garcia

42 | KULTURA | OÑATIKO GAZTETXEAK 10 URTE

Aitortza eta memoria, fikziotik ere bai

Gorka Peñagarikano

46 | KULTURA | HILEKOA LITERATURAN II

Odola darie irudiei

Ainhua Aldazabal

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Ezaguirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Lide Iraola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**


KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA





Negozia über alles

1.500 poliziaren aurrean, ehunka ekintzaile herri txiki baten (Lützerath) eraistea geldiarazten saiatu dira, RWE energiaren Alemaniako multinazional erraldoiak handitu ez dezan aire zabaleko ikatz meatze bat –lignittoa, energia-iturri kutsagarrienetako bat atmosferarentzat—. Zonalde hori berdeek (Die Grüne) gobernatzen dute CDU kontserbadoreekin batera. Alderdi ekologistaren helburua 2030erako ikatzari uko egitea zela zioen hauteskundeetan. Areago, Alemaniako Gobernuak ikatzeko hamabi zentral elektriko jarri ditu martxan berriro, eta zentral nuklearren bizitza luzatu egin du. Dena energia-krisiaren izenean, zeina gobernarien ustez gerra baten ondorioa den; beraiek aktiboki sustatu eta hauspotu duten guda, (berotze globala handitzen laguntzen duten) arma saldoa emanda, besteak beste. Politika instituzionalaren ezina, biolentzia, kutsadura eta herritarren erresistentzia. Garaiotan sarri ikusten eta ikusiko dugun laukotea.



ARGIA *Sariak*

Euskarazko kazetaritza
eta komunikazioaren
ARGIA sariak 2023

Urtarrilaren 27an
ospatuko dugu 34. edizioa,
Usurbilgo Atxega jauregian.

Sarituko ditugun arloak:

Entzunezkoa
Prentsa
Ikus-entzunezkoa
Internet
Kanpaina
Merezimenduzkoa

Sari banaketa zuzenean
jarraitzeko aukera izango
da arratsaldeko 16:00etatik
aurrera, **argia.eus** webgunean.

Mastodon, Twitter,
Instagram eta Facebook sare
sozialetan ere izango gara,
#ArgiaSariak2023 traolarekin.

Azora putre funtsak Donostiako eta Bilboko autobus-estazioak erosi ditu

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Etxebizitza eskubidea urratu eta espekulazioan aritzeagatik ezaguna da Azora putre funtsa, bereziki Donostian; bere aurkako plataforma sortua dago: Azoraren Maizterrak.

Uztailean erosi zuen Azora putre funtsak Donostiako autobus-geltokia –egunean 8.000 eta 10.000 erabiltzaile inguru ditu–, eta berriki ezagutu da Bilboko Intermodal zentroaren partaidetzaren %51 erosi diola Amenabar Taldeari. Donostian baino bi aldiz erabiltzaile gehiago ditu egunean Bilboko autobus-estazioak, lehen Termibus zenak, baina horrez gain, Renferen aldirietako trenak, Bilboko metroa eta tranbiarako sarbidea ere eskaintzen du Intermodal delakoak.

ETXE-KALERATZE ASKOREN EGILE

Bi hilabete baino ez dira atzera egin behar zeresana eman zuen Azoraren etxe kaleratze bat aurkitzeko. Donostiako Gros auzoan, Ertzaintzak bizilagun batzuk bota zituztela salatu zuten funtsaren aurka antolatuta dagoen plataformak, Azoraren Maizterrak deiturikoak. Behin baino

gehiagotan salatu dutenez, etxebizitza askoren jabe da Azora funtsa eta hilabeteak dira auzokideak beren etxeetatik botatzen ari dela. Azaroaren hasieran jazotako gertakari horietan, hainbat bizilagun gerturatu ziren familiari babesa adierazi eta kaleratzea salatzea; herritarrek jarrera baketsua izan zuten arren, Ertzaintzak borra kolpeka erantzun zuela informatu zuen orduan *Irutxuloko Hitzak*. Sareetan zeresana eman eta Donostiako Udalak ohartarazpena egin zion enpresari, oroitaraziz "ez duela eskumenik "bere jabetzako etxebizitzak "apartamentu turistiko bihurtzeko".

Aurrez, 2022ko otsailean, Azoraren Maizterrak, STOP Kaleratzeak eta Alokairu Benta Berri taldeek lortu zuten Azora putre funtsaren desjabetze bat bertan behera uztea. Auzia lehendik dator: 2020an, prentsaurreko bidez jakinarazi zuten Azoraren Maizterrak mugimenduko kideek funtsa hilero-hilero jendea kaleratzen ari dela. Izan ere, salatu dutenez, alokairu-prezioak maiztasun oso handiz igotzen dituzte eta horren jakinarazpena burofax bidez egiten dute. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Komeni zaigulako



UXUE APAOLAZA LARREA

Albistegietako sumarioetako lehen albisteak zein ziren ikusten aritu naiz, ideia bati tiraka. Baina etsi dut, edozeri buruzko edozer irakurriz, aktualitateaz pentsatzen jarri orduko, “uuuuu” luze bat entzuten dut. Eta amorrua sentitzen dut nire ez-parranda garaia orain egokitu delako. Aktualitatea kanta batean dago azken astean.

Ez naiz batere Shakirazalea izan, azken kantak eragin didanaren kontrakoa eragiten zidalako beti orain arte. Ez berak, bere kantek (eta folletoi itxurako melodramen artean, nahiago ditut Espainiako folkloriken gorabeherak). “Ez berak” hori garrantzitsua iruditzen zait, sortu diren debateetan nola sentitu naizen horrek definitzen baitu. Ez berak.

Nik ere izan nuen, hitzei adi jarrita, moralizatzeko tentazioa: “Zer erru du nobia berriak?”. Baina nobia berria ez dago kantan. Inor ez dago kantan. Kanta gaur atera da, baina betirako da, eta betirako paktua ez da abeslariaren eta bere bizitzaren eta gure artean, kantaren eta gure artean da. Eta ez da Rosaliaren *Despechá*, kanta hau señora batena da, haurrak eduki dituen, buruaskia dena... Urte asko listagoa da, eta hoge urteko pertsona bat bere ordezu aukeratzeak lerroarte asko eta sakonak ditu, gizonari buruz. “Eta alderantziz balitz, gizon bat bere neska ohiaz?”. Oh, mama. Beti abestu da alderantziz.

Eta nik ere izan nuen, hitzei adi jarrita, antikapitalista jartzeo tentazioa: “Gure askatasuna fakturatzeko al da?”. Abeslariari zilegitasuna ukatu nahi dioten kapitalista asko ari dira (bat-bateko katoliko zorrotz) zenbatzen bere balizko sufrimenduagatik zenbat fakturatu duen. Tira, ba bai, zuek bezain beste. “Komeni zaizuelako ari zarete orain zenbait gauza justifikatzen”. Ba bai, hori ere bai. Eta komeni bazaigu, aurrera, “uuuuu”. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Pobrezia

Munduko aberatsenen %1ak eskuratu du munduko aberastasunaren %63. 2019ko abendutik 2021eko abendura munduan sortu den aberastasunaren bi heren %1 aberatsenen esku geratu da, Oxfamek kalkulatu duenez. Muturrerantz ari dira aberastasuna eta pobrezia mende honetan.

Klima larrialdia

Science aldizkariaren ikerketak argi uzten du: ExxonMobil petrolio enpresa erraldoiak 1980ko hamarkadan jadanik bazekien bere aktibitateak klima larrialdia ondorioztatuko zuela. Froga bat gehiago da, berresten duena erregaien sektoreko boteretsuek aspalditik dutela horren berri.

Armagintza

Satlantis Microsats enpresa bizkaitarrak aldarrikatzen du gaurko “Gerra Hotz Berria” Mendebaldeari laguntzen diola: satelite-enpresa honek darama lidergoa Europako Defentsa Programaren esparruan 4,8 milioi euroko dirulaguntza jaso duten bi proiektutan.

Zerbitzuz kanpo



ULA IRURETAGOIENA

Urteko lehen astean Euskal Herriko Unibertsitateko eraikin guztiak itxirik izan dira. Ikasketarako liburutegirik ez. Hainbat kultur zentron ordutegia, mugaturik. Batzuk gabon oporren luzaera eginaz, besteak urtearen nobedadea aurkeztuz. Astelehenetan itxirik mantenduko dira, edota ordubate atzeratuko dute ate irekiera. Hainbat osasun etxetako medikuaren gelaren atea krisketarekin dago, ez baitu oporraldien bueltan inor espero. Hauek dira publikoaren arreta duten espazioen itxialdiak, baina ziur naiz arreta publikorik gabeko beste hainbat gelek ere sumatuko zutela hustuketarik edo erabilera mugapenik.

Urte hasierako berritasun espazialak hiria gruyère gazta moduan ikustera garamatza. Hainbestetan gerta dakiguke, administrazio publikoaren eraikinak esatea "sentitzen dut, ez gaude funtzionamenduan, saiatu beste une batean".

Ez da erabateko abandonu espaziala; epe batez eta modu intermitentean, batzuetan bizitzarik gabe hustutako lekuak dira. Barrunbe hotsetarako izkina gehiago. Erabilerarik gabeko ordenagailuak. Utzitakoaren usaina hartuko duten paretak. Aprobetxamendua galduko duten espazioak. Bizitzaren *interruptus* guneak. Egoera sozio-politiko baten isla eraikin publikoen espazioetan.

Baliteke eraikin publikoek espazioa soberan izatea eta beraz alferrikako erradiadore asko martxan izatea. Hori erakusten duen espazio-azterketa baten aurrean bagina, espazio beharren planifikazio bat egin ahaliko litzateke, zerbitzua eten beharrean energia xahutu gabeko beroketa gastu mugatu bat bermatuko duen espazioen berrantolaketa batekin. Kasu batzuetan eraikinaren diseinuagatik ez da posible izango beste modu batean erabiltzea gastu energetikoa gutxitzeko. Baina espazio publikoen hausnarketa bat eskatzen du seguru, energiaren gaiaz harago, zerbitzua egoki eta eraginkor eman dezaten, espazioa kudeaketa publikoaren afera ere badelako. ●



Barka, baina teoria hori...

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Brasilgo presidente kargua hartu berri duen Lula da Silvaren aurkako estatu kolpea emateko eskatuz militarrei, Jair Bolsonaro lider ultraeskuindarraren milaka jarraitzailek presidentearen egoitza, Kongresua eta Auzitegi Gorena okupatu zituzten hilaren 8an. Gertakariak antzekotasun nabarmenak ditu bi urte lehenago AEBetan jazotakoarekin: Donald Trumpen jarraitzaileek Washingtoneko Kapitolioa hartu zuten, hauteskundeetako emaitzak ziurtatzeko. Gorka Bereziartuak *Faxismoaren outfit berria* artikuluan azpimarratu zuenez, eskuin muturraren *modus operandi* berri baten aurrean egon gaitezke: "Hauteskundeak galtzen dituztenean, euren oinarri soziala erakundeak astintzera bidali". Aurretiaz eta denbora luzez, hedabide hegemonikoek haien errelatoa hauspotu izanak errazten du hori. Eta horrekin batera, eskuin muturrak publikoa xaxatzeko dabilen tresna indartsuak: sare sozialen bidezko informazio jarioa. Erdizkako egia, gezur erabateko eta konspirazio teorien koktela. Hurrup.

Desegonkortasunak eta etorriko denarekiko ziurgabetasunak ezaugarritzen dute bizi dugun garaia. Airean datzan ondoeza murtzikatu egin daiteke, eta ez da gutxiagorako. Halabaina, konplexua da inguratzen gaituen errealtatea, eta hori ez da edonolako traba gertatzen ari denaren gaineko irakurketa zuzenak egitera bidean. Hari-mutur guztiak lotu ezinagatik senti genezakeen larritasuna izan daiteke konspirazio teorien amua irensteko arrazoietakoa bat. Izan ere, Carlos Buj-ek *Ctxt*-n argitaratutako analisisan azaltzen duenez, "errealtate konplexu eta larriagarria sinplifikatzen dute, erantzukizunez salbuesten gaituzte, eta gehiengoari oharkabea pasa ohi zaizkion gauzak deskubritzen dituen pertsona argi gisa balidatzen gaituzte". Behin teoriak sinetsita, kontutan hartuak ez izateak berretsi egiten du postura gainera.

Eskuin muturrak badaki desegonkortasun egoerez baliatzen, konspirazio teorien bidez jendea –eta hortaz, gertakizunen bilakaera– berera lerratzen. Buj-ek gauzatutako ikerketa horren froga: larrialdi klimatikoa gezurtatzen duten konspirazio teoriak aztertu ostean, "porositate argia" antzeman du berak *konspiranosfera* izendatutakoaren eta eskuin mutur espainolaren artean. "Obsesioak elkarbanatzeaz gain, narratiba batek bestea elikatzen du", dio. Eta hori esanda, ñabardura egin du: espektro politiko ezkertiarrekin identifikatzen diren pertsonak ere egin dezakete bat teoriokin. Elitea jo-puntuari jartzeak, autoritarismoaren aurka altxatzeko deiak... "errebelde" eta "antisistema" zirkulua irudi dezake. Baina ez ote zaion bati baino gehiagori oharkabea pasa faxistak ere ager daitezkeela gisa horretan, errebeldiak eta indarrean den sistemarekiko ustezko aurkakotasunak ez dutela nahitaez ideia ezkertiarren eskutik joan behar.

Bereziartuaren artikulura itzuliz, eta dioenarekin bat eginez, faxismoaz dugun iruditeriak ez dio erantzuten egungo errealtateari. Residualak dira neonazi estetika daramatenak, jende arrunta da gehiengo. Erreparatu diezaigun ondo heltzen zaigun informazioari eta albokoari, egon nahi dugun tokian gaudela ziurtatzeko. ●

2/3

35 urtetik beherakoen
%32,9 baino ez zegoen
emantzipatuta 2021ean, EAEn.
Beste era batera esanda: hirutik
bi gurasoen etxean bizi zen.

600

biztanle galdu ditu Ziburuk
sei urtetan, etxebizitzaren
prezioaren gorakadagatik.
6.800 izatetik 6.200 biztanle
izatera pasa da.

%25

igo da urtebeteen ebakuntza
baten zain daudenen kopurua
Osasunbidean. 2022ko
abenduan, ebakunzaren zain
8.206 lagun zeuden; lehen kirurgia
kontsultaren zain 59.575.

17

kamera berri jarriko ditu
Gasteizko Udalak udatik
aurrera, Zabalgunean eta
Alde Zaharrean, "delituak
denbora errealean
detektatzeko".

*"Jurramendira ez zen
kasualitatez etorri mundu osoko
faxisten bilduma hori"*

**JOSU CHUECA**

1976an espainiar faxismoak
Jurramendin egindako erasoaren
lekuko izan zen Chueca historialaria.
Erasoan Espainiako Estatua, Manuel
Fraga eta Espainiako errega zaharra
inplikaturik agertzen dira Alderdi
Karlستak zabaldu berri dituen agirietan.

HALA BEDI (2023-01-11)

**"DESGAITASUN HANDIKO
BI SEME DITUGU,
NOIZKO ALOKAIRU EGOKITUKO
ETXEBIZITZA BAT?"**

Desgaitasun handia duten semeen beharretara egokitu
ezin den etxe batean bizi da familia bat Derion, alokairuan,
eta Jaurilaritzan aspaldi dute eskaera egina: adin txikikoen
premietara egokitzen den etxe bat behar dute.

2023KO URTARRILA

*"Badirudi ez PSNk ez Navarra
Sumak ez dutela babestuko
Mañeru eremu 'ez euskaldunetik'
mistora pasatzea"*

JABI ARAKAMA

Geroa Baiko parlamentaria. Eremu "ez
euskaldunetik" mistora pasatzea eskatu
du Mañeruko udalbatzak eta Nafarroako
Parlamentuak eskaera onartu dezan PSN edo
Navarra Sumaren aldeko botoak beharko dira
—gainerako alderdiek alde bozkatuko dute—.

ARGIA.EUS (2023-01-10)

Urdaibaiko Guggenheimen azken polemika

LIDE IRAOLA

Urdaibaiko Biosfera Erreserban, Guggenheim musearen egoitza eraiki asmo duten lekuan, ingurunearen zaintzarako babesa ia erabat kendu nahi du Bizkaiko Foru Aldundiak: orain itsasotik hasita 100 metro lur daude babestuta, eta hogeira murrizteko eskatu dio Madrilgo Kosta eta Itsasoen Zuzendaritzari. Elkarrekin Bizkaia eta EH Bilduk kritikatu dute erabakiak ez duela errespetatzen Biosferako ekosistema.

Astelehenean Batzar Nagusian baieztatu du informazioa Iraunkortasuna eta Ingurune Naturalaren zaintzarako diputatu Amaia Antxustegik, baina ez du azalpen gehiagorik eman, eskaera oraindik tramitean dagoela argudiatuta. Urrian jarri zuten martxan. Guggenheim eraiki nahi duten eremua Murueta ontziolaren jabetzakoa da, baina administrazio publikoak eskumena du ingurunearen zaintzarako neurriak hartzeko; besteak beste, biosferarako kaltegarriak diren ekintza ugari debekatuta daude.

Elkarrekin Bizkaia alderdikide Héctor Fernándezek jakitera eman du Diputazioak babesik gabe utzi asmo duen eremua Urdaibaiko Erreserbako gunerik babestuen dela orain. Salatu du erabakiak ingurunea eta kosta zaintzeko oinarriak urratzen dituela. EH Bilduk ere zalantzan ipini du erabakiak Kostaldeei Buruzko Legearekin bat egiten duen ala ez.

Antxustegik erantzun du proiektuak ingurumena babesteko "behar beste neurri" izango dituela, baina oraindik ez dela horretarako garaia.

2008TIK

2008an hauspotu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko Guggenheim museoaren bigarren egoitza eraikitzea. Orduko hartan, baina, aurrerapen txikia egin zuen proiektuak, Eusko Jaurlaritzak diruz babestu ez zuela-eta. 2020an, Europako Next Generation funtsak jasotzeko proiektuen zerrendan aurkeztu zuen Jaurlaritzak Urdaibaiko Guggenheim, eta Bizkaiko ahalzun nagusi Unai Rementeriak argi utzi izan du proiektua "bai ala bai" egin behar dela, "Europako laguntzekin ala gabe". Hasieratik izan dira museo berriak ingurumenean izango dituen ondorioak salatu dituzten ahotsak. ●

NAZIOARTEA



Ezker ala eskuin, maputxeak berdin?

AXIER LOPEZ

Urrunetik ikusita, egoera alda zitekeela zirudien. Altxamendu herriko batek eragin zuen faxistek idatzitako konstituzioa berridaztea- prozesua hasieran maputxe batek zuzenduta -, hauteskundeak ezkerreko koalizio batek irabazi zituen... Hilaren 10ean, Gabriel Boric presidentek eskatuta, Wallmapun larrialdi-egoera luzatzea onartu zuen kongresuak, "hegoaldeko bi eskualderen kontrolerako militarrek erabiltzen jarraitzeko". Boric salbuespen-egoeraren aurka jarri argia adierazi izan du, eta maputxeekiko gatazkan hura erabiltzearen aurka azaldu da, "indarkeria areagotu izan duten errezetak ezin direla errepikatu" esanda. Halako jarraia izan du, boterera iritsi arte. Ordutik salbuespen-egoera 15 aldiz berritu du gobernuak.

Maputxeen bandera, lurraren defentsan eta erregimen kolonialaren aurkako borroka eta erresistentzia luzeagatik, ezker koalizio bat boterera eramaten lagundu zuen 2019ko ez-tanda sozialaren ikur nagusietako bat izan zen. Orduan ez ziren gutxi uste zutenak gobernu aldetak lagunduko zuela herri maputxearen egoera hobetzen. Baina errepresioak indarrean jarraitzen du, eta ezkerreko gobernu maputxeen lurretan nagusi diren botere ekonomiko faktikoen defentsarekin lerrokatu da. Adibiderik argiena, baso-ustiaketa da. Deforestazioan oinarritutako negozioak ingurumenari

eta inguruko komunitate guztiei -sarri ur edangarririk gabe uzten dituen- egiten dien kaltea gorabehera, Boric gobernuak jabetza pribatuaren eta, beraz, latifundismoaren defentsan agertu da, maputxeei ebatsitako lurren ezbaian latifundisten interesen alde eginda. Arpilatze kolonialaren ondoren, ehunka mila hektarea, iruzur eta indarkeriaren bitartez, egur-industriaren, hidroelektrikoen, ekoturismoaren, eolikoaren eta monolaborantza intentsiboko ekoizpenen jabetza izatera pasa ziren.

Oraindik ez da urtebete pasa Txilen ezkerreko agintean dagoela, eta dagoeneko preso daukate Wallmapuko lurren okupazioaren aurka borrokatzen den Arauco Malleco Koordinakundeko (CAM) zuzendaritza. Héctor Llaitul bozeramailea abuztuaren 24an atxilotu zuten, terrorista izatea egotzita. Ondoren, CAMEko kide gehiago atxilotu eta espetxeratu dituzte, besteak beste, Llaitulen semeetako bi, Pelentaro eta Ernesto. Euren egoeraren berri emateko, gose greba hasi zuten azaroaren 27an, eta hilabete eta erdi greban egon ondoren, urtarrilaren 11n amaiera eman diote. "Guretzat ez da ezer aldatu. Kontrara, orain kolonialismoa eta kapitalismoa aurkeztzen ari dira progresismo zantzuekin; boteredunak eskuin zein ezkerrekoak izan, maputxeak zapaltzen segitzen dute", adierazi zuen CAMEk Boric azaroan Wallmapura egin zuen bisitaren harira. ●

Erretretaren erreforma Frantzian

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Frantziako Gobernuak aurkezturiko azken erreformak parean dauzka sindikatu guztiak eta horrelakorik ez zen gertatu azken hamabi urteetan; lehen mobilizazioa urtarilaren 19rako finkatu dute. Xeheki begiratu diogu erreformari, gobernuaren azalpenei eta aurkakoen irakurketari lekua eginez:

● ERRETRETARAKO ADINA 62 URTEK 64RA

Gobernuak bi urtez atzeratu nahi du erretretara sartzeko adina, 62 urtetik 64ra. Irailaren 1etik aitzina, urtero hiru hilabetez gibelatuko da adina, azkenean, 2030erako 64 urtera heldu arte.

● URTE BAT GEHIAGO KOTIZATU, HOTS, 43 URTEZ

2020an abiatutako moldaketa aitzina doa: geroz eta gehiago kotizatu behar da pentsio osoa jaso ahal izateko. Hori ere progresiboki egingen da, azkenean, 2027rako 43 urteko kotizazioa behartuz erretreta osoaren truke. Hala ere, gehienez 67 urte arte egingo da lan.

● ERREGIMEN BEREZIEEN DESAGERPENA

Orain arteko erregimen berezien gehiengoa bertan behera geldituko da. Orotara 42 dira, lanbideen arabera banatuak –funtzionarioena, tren gidariena, laborariena, eta beste–, beraien artean pentsio ezberdintasunak ondorioztatuz. Lehen ministroak errandakoari segi, "justiziaren eta aitzina-menduaren" izenean berdindu nahi du erretreta sistema.

● GOBERNUAREN ARGUDIOA

"Pentsio sistema ez da finantzarioki orekatua" eta horregatik dute herritar-



Elisabeth Borne, Frantziako Lehen ministroa, erretreta sistemaren erreforma aurkezteko prentsaurrekora doala, urtarilaren 10ean.

rrek lan gehiago egin behar, aurreikusitako zulora ez iristeko –12.000 milioi eurokoa 2027an, 21.000 milioi eurokoa 2035ean–. Parean, aurkakoei diote ez dagoela hain aldaketa handia bideratzeko behar gorriarik. Hala nola, Attac egiturak ohartarazten du COR Pentsioen Orientaziorako Batzarrak aurreikusitako defizitak pentsioen %4 heina errepresentatzen duela: "Nahikoa litzateke kotizazio tasaren emendio oso ahul bat, 0,8 eta 1 punturen artekoa, hamarkada osoan hedatuko litzatekeena". Gainera, azken bi urteetan erretreta kutxa soberrakinezkoa izan da, 2021ean 900 milioi eurokoa eta ia 3.200 milioi eurokoa.

Gero eta erretretadun gehiago izanik, kopuru horretan eragin behar dela dio Frantziako Gobernuak, baina bere horretan, lan denboraldia luzatzeak ez du arazoa konpontzen, eta bestelako aldaketak bideratu behar dira lirategi berrak eraginkorra izateko, erretretaren eta lan aktiboaren artean langabezia ere dagoelako eta langile adindunen enplegatze apala delako gaur egungo errealitatea.

● AURKAKOENTZAT, INJUSTIZIA AREAGOTZEN DUEN ERREFORMA

Gutxienez 1.200 euro ingurukoa izan da erretreta hein apalena; orain artekoa baino ehun bat euro gehiago jaso behar luke gutxien errezibitzen duenak. Alta, langile sindikatuei diote herritar pobreenek dutela gehienik pairatuko aldaketa. Aspaldian lanean hasitakoentzako erretretara lehenago sartzeko aukera beti mantentzen bazaie ere, bi urtez atzeratuko zaie –orain arte 60 urterekin bazen, erreformak 62ra luzatzen die–. Jakinik lan fisiko eta gogorrez osaturiko lan sektoreetan dabilazala gazte-gazte eta usu diplomatik gabe hasi zirenak, pentsatu daiteke bi urtez luzatze hori gehiegizkoa izan zaiela anitzei.

● ZAHARRENEEN ENPLEGUA SEGURTATZEKO ERRONKA

55-64 urtekoen enplegu tasa %56koa da Frantziako Estatuan, Europar Batasunean (%60,5) baino apalagoa, patronalak nahiago duelako soldata altuagoak dituzten aspaldiko langileez bereizi, soldata apalagoa duten gazteenak hartzeko. Egoeraz kontziente, neurri pare bat bideratzea du xede gobernuak, nahiz eta eragin txikia aurreikusten zaien.

● LANAREN NEKEA AINTZAT

2017an, lan arriskuei buruzko Sumer inkestak argitaratu zuen Frantziako metropolitano 13,6 milioi langile –langilegoaren % 61a– egon zirela "nekezia ondorioztatutako faktore baten edo gehiagoren eraginpean" mediku bisita behartuaren aitzineko astean. Arazo horri aurre egiteko zailtasunak dauzka gobernuak eta nahiz eta hitzez erretreta aurreratzeko asmoa plazaratu, hitzak ez dira gauzatzen.

Lehen ministroak dio hamar langiletatik lau joaten ahalko direla 64 urteak aitzin erretretara, baina ikusirik zifrek salatutikoa, datu hori ez dute sinesten sindikatuek. ●

Peruko hegoalde pobreak lurra du aldarrikatzen eta egurra du jasotzen

Pasa den abendutik Perun gertatzen ari diren istiluak, herrialdearen egoera politiko ahularekin lotu dituzte munduko hedabide nagusiek. Pedro Castillo presidente ezkertiarren noraeza, haren kargugabetzea, Andeetako eskualdeetako herritarren altxamendua eta haien kontrako errepresioa... Atzean baina, lurraren lapurretari loturiko zauri sakon bat dagoela erakusten du inken osteko historia kolonial arrazistak.

 URKO APAOLAZA AVILA



Polizia herritarrak erreprimitzen Chaon, errepede Panamerikarrean, abenduaren 15ean. Azpiegiturak blokeatzea da protesta egiteko bide nagusietako bat Perun, meatzaritza eta elikadura multinazionalen lehengaiak esportatzea eragozteko. / ARGAZKIA: AP



Mundu honetan egin behar du-
dan gauza bakarra da pozik
bizitzea, eta hori lortuko dut
lurrak kentzen ez badizki-
date”. Halaxe idatzi zuen Francis Beau-
mont poeta ezagunak XVII. mendeko
Ingalaterran, lur komunalen hesitzea
eta pribatizatzea hasi zenean. Mende
hori amaitzerako erreinuaren zortziren
batek baino ez zion eusten basoz estalia.
Gorputzen desjabetze masibo bat ere
izan zen Ingalaterrako *enclosure* hura:
pribatizazioaz gain, ekarri zuen lurrik
gabeko milaka lagun gosetuk Ipar Ame-
rikako kolonietan amaitzea, euren esku-
lana esklabotza baldintzetan salduta.

Poetak duela lau mende pozik bizi-
tzeko behar zuena, gaur egun ere behar
beharrezkoa dela ikusten ari gara, ho-
rregatik lurraren jabetzaren inguruko
borrokak ugaritzen ari dira munduko
txoko askotan. Hego Amerikan, Peruk
eta Brasilek bizi dituzten egoera poli-
tiko eta sozial desegonkorrek zerikusi
zuzena dute kolonialismoaren garaian
zein XXI. mendean lurren arpilatzeak
utzitako ondorioekin, herritar xeheek
eta komunitateek oraindik oroimenean
baitute iraganean oinarritzko ondare
hori denona izan zen garaia.

DEFORESTAZIOAREN PARIAK

Pozik bizitzeko “egunean hiru otordu”
gutxienez beharko lirateke Luiz Inácio
Lula da Silvaren esanetan, eta hori da
hitzeman diena brasildarrei, bere hiru-
garren agintaldiko presidente kargua
hartu berritan: “Gure lehen helburua
izango da 33 milioi pertsona gosepe-
tik erreskatatzea”, esan zuen Langileen
Alderdiko buruak Brazilian emandako
hitzaldian, aurreko presidente Jair Bol-
sonaro ultraeskuindar negazionista,
homofobo eta antiabortistak hegazkina
hartuta AEBetarako ospa egiten zuen
bitartean.

Baina horretarako Lulak badaki, diru
publikoa ondo kudeatzeaz aparte, Bra-
silek duen baliabide komun nagusia
zaindu beharko duela, bere lurrak eta
oihanak: “Brasilek ez du deforestaziorik
behar nekazal muga estrategikoak za-
baltzeko”, ohartarazi du. Bolsonaroren
agintaldiaren amaieran oihanen soilteza
%150 baino gehiago hazi zen, 10.000 ki-
lometro koadro gairatzeraino, hainbat
hedabidetan irakurri ahal izan dugunez.
Auskalo horietatik zenbat diren jato-
rriko herri indigenek mendeetan zehar
ehizarako eta biziraupenerako zaindu-
takoak.



Brasilen bezala Perun, deforestazioa da indigenen lur komunalak ilegalki bereganatu eta
pribatizatze metodo nagusietako bat multinazionalentzat.

Castillok egindako akats ugariak baliatu nahi izan ditu Peruko eskuinak bere irudia desgastatzeko

Oihan tropikal eta lur komunalenga-
nako mehatxua ez da Brasilera muga-
tzen. Perun ere antzera daude. Duela
hilabete inguru, Santa Clarako Uchunya
komunitate natiboak eta Shipo-Koni-
bo herri indigenak salaketa jarri zuten
Ekonomia Lankidetzara eta Garapenerako
Antolakundean Louis Dreyfus Company
(LDC) multinazional frantziarraren kon-
tra, palma olioaren bere hornitzailea

den Ocho Sur konpainia Amazonaseko
euren antzinako lurrez jabetu delako
legez kanpo, eta 12.000 hektarea oihan
suntsitu dituelako. LDC-k nekazal pro-
duktuak prozesatzeko munduko inperio
handienetako bat dauka, eta irakurlea
bere webgunean sartzen bada, “inguru-
menaren eta tokiko komunitateen gara-
penaren aldeko” mezu panpox bat aur-
kituko du. Hain justu, publizitate *berde*
faltsua erabiltzeagatik ere salatu dute
indigenek.

ISTILU LARRIAK PERUKO HEGOALDE POBREAN

Baina zer espero genezake azken zaz-
pi urteetan sei presidente izan dituen
Peru bezalako herrialde batean? Pasa
den abenduan istiluak lehertu ziren, Pe-
dro Castillo presidente ezkertiarrek par-
lamentua ixtea agindu eta hauteskun-
de konstituziogileak deitu zituenen.
Kongresuak kargutik berehala kendu
eta atxilotua izan zen, eta bere orde-
z Dina Boluarte Zegarra presidenteordea
jarri zen, protestan ari ziren herritarren



Abenduaren 8an milaka herritar irten ziren kalera Perun, Pedro Castillo estatuburua askatu eta hauteskunde konstituziogileak eskatzeko. Mobilizazio jendetsuenak eta istilu larrienak Peruko hegoaldean izan dira, Castillo 2021ean boto gehien lortu zuen Andeetako eskualde indigenetan.

kontrako errepresio basatia eta hildako ugari eraginez. Eguberriak igarota istiluak berpiztu egin dira. Lerrook idazteko unean poliziek Juliaca hirian –Limatik 1.300 kilometrora– hamazazpi lagun saraskituak zituzten jadanik, eta Cuscon Remo Candia nekazal buruzagia hil berri dute, *Ojo Público* hedabide independenteak azaldu duenez. Boluarte eta bere ministro batzuk “genodizioagatik” iker-tuak izaten ari dira ondorioz.

2021eko ekainean Castillo bezalako landa eremuko irakasle ketzua hartzun umil batek Keiko Fujimori ahaltsuari hauteskundeak irabaztea ez zen inolaz ere yankien gustuko izan, eta haren kontrako *lawfare* edo gerra juridikoa etengabea izan da geroztik. Peruko presidenteak egindako akats ugariak –ustelkeriaz zikindutako ministroak etengabe aldatzea, besteak beste– ederki baliatu ditu eskuinak, oposiziotik zein prentsa horitik Castilloaren irudia desgastatzeko.

Baina hala ere, abenduaren 8an milaka lagunek aireportuak eta errepedeak blokatu zituzten *rondero* ohiaren aska-

Andeetan inkak nagusi zirenean, lur komunalak ‘ayllu’ izeneko komunitateetan partekatzen zituzten

tasuna eskatu –70eko hamarkadan Peruko landa gunean ganadua lapurretatik babesteko sorturiko erakunde autonomoak dira *errondak*– eta “parlamentu ustela” desegitea eskatzeko. Horietako asko hegoaldeko andetarrak dira, Cusco, Arequipa eta Puno bezalako nekazal eskualdeetakoak, hain justu duela urte eta erdi botoen bidez Castillo presidentetzara eraman zutenak.

KOLONAURREKO “KOMUNISMORA” ITZULERA?

“Nekazarien auzia, luraren arazoa, oso presente dago gaur egun oraindik Perun, eta ez dago alderdi politikorik ez gober-nurik konponbidea emango dionik”, azaldu du Luis Mora ekintzaileak *Presenza* albiste-agentzia sozialean, *Peru: problemas de fondo* (“Peru: sakoneko arazoak”) artikuluan. Bere esanetan, Castilloaren alde atera dira “lurretik desjabetutako” probintzietako milaka lagun, eta nekazari-ekin dagoen arazoaren oroimen historikoa ekarri dute gogora, 1492an europarrak iritsi eta lur hoberenak eskuratu zituztenetik behin eta berriz azaleratu dena. Izan ere, kolonaurreko garaian bes-tela ziren gauzak askoren aburuz.

Andeetan inkak nagusi zirenean, lur komunalak –Euskal Herrian Zilegi mendien antzekoak– *ayllu* izeneko komunitateetan partekatzen zituzten, eta figura hori erabili zuen José Carlos Mariátegui (1894-1930) pentsalari marxista perutarrek XX. mendean “komunismo indigena” defendatzeko. *Le Monde Di-*

plomatique-n Mariáteguiren ideia hori laburbildu du Paul Guillibert Paris-Nanterre Unibertsitateko filosofia irakasleak, *Races, classes et plateaux andins* ("Arrazak, klaseak eta goi-lautada andetarrak") izenburupean. Mariáteguik pentsatzen zuen Hego Amerikako arrazakeria postkoloniala ez zela soilik arazo moral bat, materiala ere bai: lurraren gaineko kontrolak bermatzen du "zurien botere inperialista", eta horregatik, indigenen berezko aldarrikapena izan da lantzen duten lurrarena.

Duela bost mende, Amerikaren konkista aurretik, *ayllu*-etako ardurak familien artean banatu eta lurra kolektiboki lantzen ziren; askoren aburuz komunismoarekin parekatu zitekeen sistema hori. "Baina Mariáteguik ez du jatorrizko komunitate hori leialki erreproduzitu nahi –dio Guillibertek bere artikuluan–, alderantziz, beretzako, bizirauteko baliabideak ematen dituen lurraren bereganatze kolektiboak suposatu behar luke eredu zahar bat berrasmatzea gizarte berri batean".

Lurra, kolonialismoa, naturaren ustiaketa, kapitalismoa... Guillibertek tesia egin du gai horien inguruan, eta liburua ere argitaratu du: *Terre et capital. Pour un communisme du vivant* ("Lurra eta kapitala. Bizidunen komunismo baten alde"). 2022ko otsailean Tolosako Okzitaniako Terra Nova liburutegian izan zen lana aurkezten eta osorik ikus daite-




ANGLO AMERICAN

Anglo American multinazionalak Quelloveco (Moquegua) meatzean inbertsio handiak egin ditu, baina hango komunitateei apenas iritsi zaie etekinetatik ezer, eta Asana erreka kutsatu du esplotazioak.

Meatzaritza eta deforestazioaren ondorioz, Perun bizi dituzten gatazken %67 ingurumenari loturik daude

ke bere hitzaldia sarean, TV Bruits web telebista asoziatiboari esker. Pentsalari perutarren ideiei heltzen die berriz ere: "Mariáteguirentzat gizarte kolonialaren arrazismoa senidetuta dago lanaren banaketarekin; natiboei ordura arte lurra-ekin zuten erlazioa ukatu zitzairen, euren lan eskua salgai jar zezaten esplotazio handietan sasi-esklabotza egoeran". Lurraren galera horrek, gainera, lotura zuzena izan zuen naturaren suntsiketarekin, Guillibertek argitzen duenez.



ORBAN GORRIAK meatzaritza enpresentzat ustiaketa kontzesioak eman dituzten lurraldeak dira. CooperAcción GKEren webgunean urtez urteko kopuruak eskaintzen dituzte, eta 2018an –azkeneko datua hori da–, Peruko lurraldearen 14% baino gehiago meatzaritza ustiaketarako baimenduta dagoela kalkulatu dute.

Peru hegoaldean, Andeatako eskualde eta hiri asko kolore gorri inguratuta ageri dira. Hor daude meatzaritza esplotazio nagusienak, Txinako multinazionalen esku dagoen Las Bambas meatze erraldoia kasu (Apurimac), eta toki horietan izaten ari dira mobilizazio handienak.





José Carlos Mariátegui pentsalari marxista perutarrentzat, Hego Amerikako arrazakeria postkoloniala ez zen soilik arazo moral bat, materiala ere bai, lurrari loturikoa.

ESTRAKTIBISTEN BIOLENTZIA

Konkistatzaileek ederki asko jarri zuten praktikan aurretik Europako herri-
tar desjabetuei egindakotik ikasitakoa. Eta segitzen dute burua lehengo lepo-
tik ukaiten, multinazionalentzat mine-
ralak eta metalak erauzteko, naturaren
eta osasunaren kaltetan –perutarren
%25 ur edangarririk gabe bizi da, Ox-

fam elkartearen arabera– Peru, mun-
duko hirugarren kobre ekoizle nagusia
bilakatu da oso denbora gutxian, bai-
na horrek aberastasun gutxi eta arazo
ugari ekarri ditu hangoentzat: herrial-
dean dauden gatazken %67 ingurume-
nari loturik daude. Datuok eta askoz
gehiago eman ditu Raquel Neyra Lima-
ko La Molina nekazal unibertsitateko

ekonomialari eta ekologia politikoan
adituak, *Conflictos socioambientales
en el Perú. Violencia y extractivismo*
("Ingurumen eta gizarte gatazkak Pe-
run. Bioletzia eta estraktibismoa")
liburuan.

Neyrak erakusten du zeinen erraz
eskuratu ditzakeen meatzaritza en-
presa batek ustiari nahi dituen lurak:
"Kontzesioak edozein tokitan ematen
dira, berdin du herriakak, basoak, ne-
kazal lurak edo komunitate indigenen
bizitokiak diren", dio ekonomialariak.

Horretarako, aurretik enpresak
terrenoak erosi behar ditu, baina ne-
kazariak nekez dakienez hainbeste
izerdiz landutako lurraren azpian ka-
pitalismoak irrikatzen duen material
bat dagoela, lau sos nahikoa dira ho-
rretarako. Gainera, nekazariak lur ho-
rren jabe dela erakutsi behar du, eta
Neyraren arabera Peruko Gobernuak
legalki aitorturiko 10.529 komunita-
teen artean 6.538k baino ez dute jabe-
tza titulua, eta horietatik %72 gaizki
idatzita daude: "Konparatzen baditugu
kontzesioen eta pobreziaren arteko
mapak, konturatuko gara erauzketa
proiektuak populazio indigena dagoen
gune pobreenetan kokatzen direla".
Erresistitzen ditunen kontra, berriz,
indarkeria erabiltzen dute eliteek, dela
prentsaren bidez kriminalizatuz edo
polizia bidaliz.

Peruko asteotako leherketa sozialak
eta Boluarteren gobernuaren erreak-
zioak zerikusi zuzena dute lurra bere-
ganatzeko dagoen lehia bortitzarekin
–irakasgaiak berdin balio lezake La-
purdiko Arbonarako edo Nafarroako
Erdizerako–. Agian horrela uler liteke
Apurimac, Cusco, Ayacucho edo Julia-
cako biztanleen artean dagoen ezine-
gona: lurak kendu badizkiete, nola
bizi pozik? ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Maialen Diaz

ANTZERKIGILE ERALDATZAILEA



BESTE MUNDU BAT ERREALITATE BIHURTZEKO, LEHENAGO IMAJINATU BEHAR DUGU, HORI EMATEN DIGU ANTZERKIAK



Azala azalaren kontra du izena Maialen Diaz Urrizak abian jarri nahi duen gaztetxoentzako antzerki tailerrak eta azala azalarekin aritzea ere mundua hobetzeko bidea dela sinetsita dago. Errefuxiatuak, migranteak, garbitokietako emakumeak, giza salerosketaren biktimak... pertsona hauen guztien larruazalean sartuta, mundua oso bestelakoa ikusten dela esaten digu Maialenek.



REYES ILINTXETA



DANI BLANCO

Nafarroan ez-ezik Madrilen ere antzerki ikasketak burutu dituzu.

Formakuntza prozesu luzea izan da?

Zorte handia eta gauza asko ikasteko aukerak izan ditut. Talentuaz eta irudimenaz asko hitz egiten da, baina antzerki teknika aldarrikatu eta balioetsi egin behar da. Kultura sortzen duten ezagupenen corpus indartsu bat badugu eta hori ezagutzeak praktika artistikoa aberasten du.

Ikasketak bukatutakoan zergatik erabaki zenuen Madrilen gelditzea?

Han gelditu nahi nuela sentitu nuelako. Hasi nintzen *Piel con Piel* izeneko tailer bat ematen Calatea konpainiarekin eta proiektu honekin maitemindu nintzen.

Sorkuntza lanean ari bazara nahi duzun tokian bizi zaitezke, baina, nire ustez, garrantzitsua da beste lekuetan gertatzen ari dena ezagutzea. Azken finean, antzerkia praktika artistiko kolektibo bat da eta besteek zer egiten duten ikusiz, zure praktika errazago elikatu ahal izango duzu. Nik aberasgarri ikusten dut.

Baina Euskal Herria bezalako herri txikientzat ez da arriskutsua talentuak polo magnetiko horietara alde egitea?

Nik uste dut joan baino gehiago talentuak bidaiatzen duela. Gure arloan talentua nomada da eta hori ona da kulturaren panorama aberasten duelako. Bestalde, badira

hemen sakonki errotuak dauden talde eta artistak, ezinbesteko lana burutzen dutenak eta horiek ere indartu egin behar dira. Batzuk eta besteak, denak dira beharrezkoak gure kultura sistema aberasteko.

Arte eszenikoei dagokienez, kon-tuan hartu beharra dago denbora bat, espazio bat eta talde-lana eskatzen dituztela. Zentzu horretan, formakuntza espazioek, gazte konpainiek, egonaldi artistikoak egiteko aukerak eskaintzen dituzten lekuek garrantzi handia dute. Oro har, espazio, denbora eta lana ahalbidetzea kulturengintza hauspotzea da.

Guk, azken finean, baldintza egokiak behar ditugu lanerako, beste edozein ogibide bezalaxe. Hori dela eta, garrantzi



Maialen Diaz Urriza

BELTZUNTZE, 1988



Nafarroako Antzerki Eskolan Arte Dramatikoko ikasketa profesionalak eta NUPen irakasle-ikasketak burutu ondoren Madrilera joan zen. Han William Layton laborategian ikasi zuen Nafarroako Gobernuaren beka bati esker eta dramaturgia graduondoko bat egin zuen. Errefuxiatuez, deserriaz eta feminismoaz hitz egiten du berak idatzitako antzezlanetan. Madrilgo Calatea antzerki taldeko kidea da eta *Azala azalaren kontra*, antzerkia eta hezkuntza bateratzen dituen haien proiektua, sarri Euskal Herrira ekartzeko asmoa du.

handia dute sormen lana sustatzeko laguntza guztiek. Lore More taldearekin *Trapu zikinak* lana sortu genuen, esaterako, Geuretik Sortuak Udalbiltzaren bekari esker. Oso ekimen potentea da eta bertako sortzaileoi aukera oso ona ematen digu proiektuak materialki posible egiteko. Beka hau deialdi bereziki interesgarria da lurraldetasunarekiko atxikimendua eta sormenaren balioes- tea barnebiltzen duelako.

Nola sortu zen Lore More?

Mikele Urroz eta bion arteko adiskide- tasunetik sortu zen. Konpainia bat sor- tzea erabaki genuen nahi genituzkeen gauzez hitz egiteko. 2018an Erriberri- ko Antzerki Jaialdian *Maxima estrella*, *Luces de Bohemia*-ren egokitzapen bat egin genuen Naiara Carmonarekin ba- tera. Horren ostean *Herri Hura*, neuk idatzitako testuaren irakurketa dra- matizatua egin genuen Tabakaleran eta gero Udalbiltzaren Geuretik sor- tuak beka iritsi zen. Mikele eta biok, Laura Villanueva aktore eta abes- laria, eta Lucia Ezker ekoiz- lea hasi ginen lanean lan hau egiteko. Oso proze- su polita izan da.

Zertaz mintzo

zarete *Trapu zikinak* antzezlanean?

Garbitokietan ibiltzen ziren emakumeentza- ko omenaldi bat da lana. Gure arbasoen arteko elkar- laguntza sareak nabarmendu nahi izan ditugu. Garbitokietara emaku- meak lan gogor bat egitera joaten zi- ren, hori hala da eta ez dugu erroman- tizatu nahi, baina egia da hor ere elkar babeserako sareak sortzen zirela.

Lantokiak baino zerbait gehiago ziren, beraz?

Bai, topalekuak ziren. Emakumeek sozializatzeko zeukaten toki baka- rrenetako bat zen. Kartzela eta eliza kenduta, garbitokiak eta iturriak ziren emakumeak etxetik kanpo biltzen zi- ren ia toki bakarrak. Ikertu dugunaren arabera, genero rola eraikitze toki garrantzitsua ere bazen. Hor ebazten zen nor zen txukuna, nor traketsa, nor puntuala... Zigor sozialak ere han ema- ten ziren, zalantzarik gabe, baina guk baloratu nahi izan dugu beste aldea, elkar-laguntzarena. Batzuetan norbe- raren trapu zikinak elkarri kontatzea

edo besteen laguntza jasotzea garbi- tze ariketa moduko bat da eta guk me- tafora horrekin lan egin dugu.

Kantu zahar ederrak abesten dituzue...

Bai. Lana goxatzeko emakumeek asko kantatzen zuten garbitokietan. Galdez- ka eta informazio bila ibili gara han eta hemen, eta hori oso lan polita izan da.

Hainbat euskalki erabiltzen dituzue. Zergatik?

Zenbait lurraldetako errealitateak is- latu nahi izan ditugu eta horretarako hainbat euskalki baliatu ditugu. Azken finean Euskal Herrian barnako bidaia moduko bat da. Aniztasun hori gure hiz- kuntzak eskaintzen digun opari bat da.

Bekak ahalbidetutako 27 emanaldiez gain, beste batzuk egin dituzue. Zein da hemendik aurrerako asmoa?

Hemendik aurrera bai antzokietan baita herrietako garbilekuetan ere egiten jarraitzea. Garbilekue- tan egiteak badu xarma berezia. Herri askotan berreskuratu dituzte garbitoki edo latsarri ederrak eta polita da imajinatzea han izan diren elkarriketak eta aitorpenak. Giro bere- zia sortzen da publikoa hurbilago egonda, ura ber- tan izanda...

Oso interesgarria izan da Orkoienen sortutako bat Ekuadorko batekin elkartzea eta galdetzea zer den haientzat hiri batek harrera egitea"

Etixerik txikiena antzezlanean errefuxiatuei buruz hitz egiten diezu haurrei. Hori nola egiten da?

Adorez, tentuz eta konfiantzaz. Hau- rren kasuan oso garrantzitsua da itxa- ropena inoiz ez galtzea eta pentsatzea bizitzak beti aurkitzen duela zirrikitu bat aurrera jarraitzeko. Errefuxiatuen dramarekin amaitzeko haurrei ezin diegu esan armen trafikoa edo gerra xede duten negozioak gelditu behar- ko lirakekeela edo diruaren banaketa justuago bat beharko litzatekeela mun- duan... Fenomeno konplexuak dira eta haien esku-hartze eremutik kanpo daude; horrek inpotentzia handia era- gin dezake eta sentsazio horrek, azke- nik, ezer egin ez daitekeela sinestera eramane. Haien esku dagoena erakutsi beharko diegu eta horregatik lagunak zaintzeaz eta beste pertsonen babesle- ku izateaz hitz egiten diet lan horretan.



Aurrera atera ahal izateko, haurrei beti eskaini behar zaie itxaropena.

Herri hura lanean deserriaz mintzo zara

Bai. Helduei kontatutako istorioa da. Sorterria utzi beharrak potentzialki gertatu ahal ziren istorioak alde batera uztea ere badakar. Horregatik dolu doinua dauka lan honek. Izan zitekeenaren inguruko istorio bat da. Mugitzeko erabakia ez dagoela jende guztiaren esku erakusten du. Batzuek pribilegio hori dugu, baina beste askok ez. Begirada feminista ezinbesteko perspektiba dugun bezala, argi eduki behar genuke arrazializatu dauden pertsonen, pobrezia egoeran daudenen edo errefuxiatuen begiekin ere begiratu behar dugula mundua.

Iruñean bigarren aldiz egin berri den Teatrodix jaialdian hartu duzu parte. Zer da hori?

Arteriak-ek eta Paris 365ek sortutako ekimena da. Paris 365ek pobrezia edo gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen elikadura duina bermatzen du batez ere, baina zer gertatzen da haien kultura-nahiekin? Nola bermatu behar zaio kulturarako sarbidea bere behar fisikoak asetzeko zailtasunak dituenari? Beste elkarte batzuekin elkarlanean, aurren antzerki komunitario eta sozialean murgildu gara. Aurtengo gaia kulturartekotasuna, bizikidetzan aniztasunean eta



Azken hitza EMAKUME SORTZAILEAK

"Ohitzen hasi gara emakumeak sortzaile bezala ikusten, zorionez, baina, aldi berean, oraindik asko dago egiteke. Genero begiradatik ikusita, adibidez, antzerki testu klasiko asko dardara eragiteko modukoak dira. Gure iruditegia eraiki behar dugu. Feminismoak oso aurrerapauso handiak eman ditu bizitzako hainbat alorretan, eta horiek gure istorioak kontatzeko modura ekartzeko lana dugu egiteke. Begirada despatriarkalizatu behar dugu imajinario kolektiboan dauden istorioei begiratzeko".

migrazioak izan dira. Oso interesgarria izan da, adibidez, Orkoienen sortutako bat, Ekuadorren sortutako beste batekin elkartzea eta galdetzea zer den haientzat hiri batek harrera egitea. Zer behar duten batzuek eta besteek ongi etorriak direla sentitzeko. Denbora behar dugu elkarrekin egoteko, elkarri entzuteko eta elkarrekin bizitzeko modu berriak asmatzeko.

Zer da Azala azalaren kontra proiektua?

Ni Nafarroako Antzerki Eskolan edo ikas-tetxeetan antzerki ikastaroak ematen ari-tua naiz, baina tailer hau desberdina da. Ez da horrenbeste antzerki teknikak erakustea eta muntaia bat egitea, baizik eta antzerkia erabiltzea ikerketa eszeniko bat egiteko. Tailer honetan aztertzen ditugu sexu indarkeriarekin zerikusirik dauzkaten fenomenoak edota sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketa bezalako gaiak. Gaztetxoaren artean errealtate hauekiko sentsibilizazioa sortzea da ekimenaren helburua. Ez da hainbeste guk kontatzea fenomeno hauek badirela, nola horren inguruko gogoeta kolektiboa egitea.

Inprobisazioen bidez hasten gara egoera desberdinak proposatzen. Adibidez: zu Errumaniakoa zara, maitemintzen zara gizon batekin eta honek esaten dizu Espainiara joateko berarekin lan baten bila. Hori izan daiteke inprobisazio baten abiapuntua. Egoera desberdinak lantzen ditugu gorputzetik, emoziotik... Pertso-

na horien larruan sartzen gara. Horrela azaldu nahi dugu ez daudela pertsona batzuk oso onak direnak eta beste batzuk oso gaiztoak, baizik eta pertsona guztiak oso konplexuak garela, egoera desberdinak bizitzen ditugula eta egoera horiek ere moldatzen gaituztela. Uler-tzen saiatzen gara. Ulermen humanistiko-a, sakona, planteatzen dugu.

Baina giza-trafikanteen larruan jartzen diren ikasleek haiekin ere enpatizatzen dute?

Enpatizatzea zaila da kasu hauetan. Gauza bat da ulertzea jokabide batzuk eragin dituzten arrazoiak eta beste bat horiekin bat egitea. Oso egoera interesgarriak planteatzen dira ariketetan. Adibidez: oso toki pobre batekoa zen pertsona bat salerosketan sartzen da bere familia bizirik jarraitzeko dirua behar duelako. Ez da erraza. Gertaeren atzean dauden arrazoiak ezagutu behar dira ere bai, baina horrek ez du esan nahi portara horiekin ados zaudenik.

Ariketa hauen bidez gazteei galdetzen diegu ea nola nahi genukeen mundu hau izatea. Aukera ematen diegu antzerkiaren bidez halako magia bat egiteko eta beste errealitateak proposatzeko. Salaketa

egitea oso ongi dago eta ezinbestekoa da, baina honetaz gain alternatibak eraikitzekeo saiakera egin behar dugu, fikzioan bada ere. Beste mundu bat eraikitzekeo, lehenago imajinatu behar dugu eta hori da antzerkiak ematen digun aukera.

Hori da hona ekarri nahi duzun proiektua?

Bai. Urtero egiten da Madrilen duela zazpi urte eta Bartzelonan duela lau. Nire asmoa da datorren ikasturtean hemen talde bat edo bi ateratzea, Nafarroa mailan has-teko, baina gero Euskal Herrian, oro har. Madrilgo eta Bartzelonako taldeekin harremanetan egotea da ideia, elkar eragin oso interesgarriak egon daitezkeelako. 15-17 urteko gazteek parte hartzen dute tailer horietan modu boluntarioan eta doan, horregatik bilatu behar da hainbat ikastetxeren eta entitaterekin inplikazioa halako proiektuak aurrera eramateko.

Gaztetxoek nola parte-hartzen dute?

Asko estimatzen dute haien iritzia entzuna dela sentitzea. Guk galderak egiten dizkiegu eta saiatzen gara elkarrekin pentsatzen. Elkarrekin pentsatzeak suposatzen du tailerra eramaten dugun helduok ere hausnarketa prozesua partekatzen du-

gula; ez ditugula gazteak gure ondorioetara eraman nahi, baizik eta elkarrekin bueltak eman gaie, dudak partekatuz ere, errespetuz eta taldea erabiliz ikaskuntza leku bezala. Norberaren iritzia besteek balioa ematea edonori gustatzen zaio.

Uste dut gaur egungo gazteen egoera oso zaila dela. Estimulu piloa dute eta iruditeria gogor bat nolakoak izan behar duten agintzen diena. Norberaren identitatea bada deskubritzen edo egiten den zerbait, eta horretarako denbora behar da. Bilaketa tarte horretan, batzuetan ez dago gauza handirik kontatzeko edo erakusteko, baina egungo munduan kontrako gertatzen da eta gaztetxoek aldioro esposizioa eskatzen zaie, argazkia, iritzia, erantzuna... eta oso zaila egiten zaie zonalde gris horietan presio horrekin bizitzea. Antzerki jolasek ahalbidetzen dute lagunarteko eta berdinen arteko espazioak sortzea. Gazteek behar dute hurbiltasuna, berdinekin harremanetan jartzea eta talde bateko kide izatea, eta hori, gainera, bi urtez izan dute debekatuta pandemia dela eta. Horrek kalte larriak sortu dizkie eta beharko genituzke toki fisikoak jolasteko, dantzatzeko... hori dena gaintzeko eta elkarrekin bizitza eraikitzeak ekartzen dizkigun onurak partekatzeke. ●



Iragarki honetan azaltzen diren pertsonak ez dira errealak, ordenagailu batek sortu ditu ausaz.

Benetako pertsonak ordenagailu batean ezagutzeko zatoz **kaixomaitia.eus** atarira!

 **kaixomaitia** Euskaldunon harremanetarako webgunea

8.000 lagun dituzu zain





Bigarren olatua xake egoeran

Akatsak zuzendu eta naziogintzan Latinoamerikako bigarren olatu ezkertiarra AEBetako atzealdeko patioaren muina diren lau herrialde garrantzitsuetara iritsi da: Mexiko, Kolonbia, Peru eta Txile. Horrez gain, lehen olatu ezkertiarrek eta XX. mendeko latinoamerikar mugimendu askatzaileek egin ez zuten bezala, justizia sozialaren diskurtso integralago bat eraiki du.

Aurreko esperientzia ezkertiarrek masak pobreziatik ateratzeko ongizate politikak bultzatzea zuten xede. Logika sinple batetik pobreenen artean emakumeak, gutxiengoak eta arrazializaturiko pertsonak gain ordezkaturik daudenez, pobrezia gutxitzea, hezkuntza ematea eta osasun publikoa eskaintzea haien egoera automatikoki hobetzea zela interpretatzen zen. Kontua da ez dela nahikoa genero, klase eta arrazializatu horiek bizi duten menpekotasun egoera amaitzeko. Izan ere, matxismoa, klasismoa eta arrazismoa ez dira desagertzen pairatzen dituztenen egoera ekonomikoak soilik hobetuz, menpekotasunak amaitzeko eta justizia soziala lortzeko beharrezkoak dira politika feministak, dekolonialak, ekologistak eta klasismoaren kontrakoak, aurretik egin zirenak baina era sendoagoan.

Olatu berriak justizia sozialaren aldeko borrokak dituen askotariko dimentsioak aipatzen ditu, arazoak, baina, proiektuak aurrera eramateko dituen problemak dira, barne ahuleziengatik, batzuetan diskurtsoaren erabilpen

Eskuinak estatu kolpe leun edo gogorrek ematen ditu eta gauzatzen ez dituenean ere, boterera iritsi berri den ezkerri mugak ezartzen dizkio

kosmetikoagatik eta eskuin erradikalak duen indarragatik. Eskuinak estatu kolpe leun edo gogorrek ematen ditu eta gauzatzen ez dituenean ere, Brasilen bezala Kongresua hartu ostean, boterera iritsi berri den ezkerri muga sinboliko eta materialak ezartzen dizkio. Azken estatu kolpea Pedro Castilloren kontrako izan da Perun. Ez da lehenengo aldia Parlamentuak Perun presidentea kargugabetzen duela konstituzioaren bihurrituriko interpretazio batekin. Halere, Castilloren kasua apartekoa da, presidente bilakatu zen unetik kargugabetzen saiatu direlako behin eta berriz.

Castilloren jatorri nekazariak eta indigenak asaldatu zuen hiriburuko elite zuria, ez bere politikek. Gabriel Boricen politikek asaldatzen ez duten bezala, baina Txilen prozesu konstituziogileak huts egiteko elementu garrantzitsuen izan da jatorrizko herriei ematen zitzaien aitortpena eta autonomia. Bi-

tartean, kontu sinbolikoetatik haratago, Boricek ezin izan ditu bere herritar pobreenen bizi baldintzak nabarmen hobetu. Horrek ere esplikatzeko du zergatik bere kudeaketaren onespena %23 den eta gaitzespena %61 (Centro de Estudios Públicos).

Boric espektatibetatik urrun dago, Txilek dituen aingura neoliberalengatik eta AEBek duten hegemonia kulturalagatik, ezkerrean ere bai. Ez dago ikustea baino nola Boricek ez duen elkartasun keinurik agertu Peruko Castillo presidente ohiarekin: zuria ondo lerrotuta zurien posizioekin. Berriz, Gustavo Petrok Castillorekin elkartasuna adierazi du, Latinoamerikako gainerako ezkerreko agintari guztiek bezala. Petrok kolonbiarren %48ko babes du, kontra dauden %44aren aurrean (Invamer). Mexikoko presidentea, Andrés Manuel López Obrador, %69ak babesten du eta bakarrik %23ak gaitzesten du (Morning Consult). Biak espektatibak bete eta hobetzen ari dira, Boliviarekin batera, salbuespenen artean daude. Gainerako ezkerrek AEBengatik mugatuta edota noraeza kosmetikoan daude. Horregatik, Lularen papera garrantzitsua izan daiteke, nahiz eta eskuineko indarrek gehiengoa izan Brasilgo parlamentuan. Lulak agenda geopolitiko soberanoa garatzea lortzen badu, latinoamerikar herrialdeentzat aukera politikorako egitura berriak ireki ditzake, burujabetasunaren eta justizia sozialaren bidean. Hala bedi. ●




ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Ederto, hitz egin dezagun migrazioaz



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



PAULA ESTÉVEZ

Soka luzea ekarri du eztabaidak. Idatzizkoetan ez ezik, baita lagunarte eta bazkalosteetan ere. Suhar eta kartsu zenbaitetan. Eta ez da gutxiagorako. Egia. Honetaz hitz egin behar dugu.

Migrazioak areagotu baino ez dira egingo datozen urteetan. Sistema, bere krisi eta kontraesan anitzetan zangotrabaturik, zauritutako basapizti bihurtzen ari da eta zorrotzago egingo du haginka.

Migrazioek jatorrizko herrialde eta jendarteetan egiten dute minik handiena. “Inork ez du bere etxea uzten, etxea marrazo aho bilakatu ezean”, dio Warsan Shire somaliar poetak. Hainbat urte lehenagoko Sarriren “Nekez uzten du bere sorterrria sustraiak han dituenak” gogorarazten dit.

Kausak dira konpondu beharrekoak. Jakina. Baina hori esate hutsa asmo hutsala baino ez da, kapitalismoaren makineria osoa gelditzeaz ari garenez gero. Eta, Heraklesen lana lortzen dugun bitartean, zer? Ateak itxi? Ederto. Baina hipokrisia barik. Itxi ditzagun guztiz, baita lehengai, elikagai, ongarri eta energiarako, baita esportatzen ditugun zabor tonetarako ere. Denbora laburrean hotzak eta goseak hilda egongo ginateke Europa osoan, kakatzan itota.

Ez gara gu makineria horren sokak

mugitzen ditugunak, baina hango espolioaz profitatzen gara. Artikulu hau irakurtzen ari zaren –idazten ari naitzen– ordenagailu edo mugikorra lekuko daukagu, bere koltan, tantalio, wolframio eta abarrekin. “Superelikagai osasuntsuak” jartzen ditugu modan Ipar Globalean eta, segidan, jendea euren lurretatik botatzen dute. Jantzen ditugun erropen inguruan berba ez egitearren. Eta ez, kontua ez da zilizioa mesanotxetik ateratzea, baina kargu har dezagun geu ere makineria horren parte izan bagarela.

“Nahikoa daukagu hemen daukagunarekin” esango lidake batek baino gehiagok. Baliteke. Hortaz, pentsa dezagun zein neurri har daitezkeen hementxe berton, baldintza hobeagoak eskuratzeko, denok.

Migrazioa lan balditzak kaskartzeko erabiltzen da. Ados. Hori ekiditeko modua ez al da, besteak beste, lagun horiei guztiei eskubide guztiak bermatzea, edozein lan edozein egoeratan onartzerara behartuta egon ez daitezen? Egoera irregularrean egotearen ondorioz, Dasmoklesen ezpata buru gainean izan ez dezaten?

Gero eta ordu gehiagoz egiten dugu lan eta aberatsekiko arrakala gero eta sakonago doa. Lana (eta aberastasu-

na) banatzea da gakoetako bat. Zaharra, baina funtsezkoa. Denok lan egin dezagun, kapitalismoa erreserba-armadarik gabe utzi eta, gainera, ordu gutxiagoz izan gaitezen esklabu. Denok.

Bestetik, beste herrialde batzuetatik etorri direnak borroka nazionalari kontrajartzea “mediku ona ala euskalduna” bezalako hautu faltsu eta interesatua da. Seguru nago hirietan harremantzeko arazo handiagoak badaudela, baina nik ingurura begiratu eta auzokideak, lagunak, lankideak, senideak ezagutzen ditut. Ni ere ezagutzen nauten herriki-deak, hitz bitan. Loturik gaude. Ez esan horiek guztiak *Bestea* direnik.

Migrazioak gure Herrian eragina duela errealitate eztabaidagaitza da. Kontua da zelan ezaugarritzen dugun etengo ez den fenomeno hori. Herrikide horiek arrisku moduan ikusten baditugu, erruduntzat seinalatuko ditugu; migrazioa zailtasun moduan ikusiz gero, ordea, zailtasun horri aurre egiteko ardura gure sorbalden gainera ekarri beharko genuke.

Lehenbizikoa bide errazena da eta faxismo soziologikoa elikatzen du. Honen tresna nagusienetako bi atontzen ditu mahai gainean: zapalduen artean “gu” eta “eurak” taldeetan bereiztea eta biktimak borrarero bihurtzea. ●

Lilura



**ANE LABAKA
MAYOZ**
BERTSOLARIA

Buruan buelta-bueltaka nerabilen aspaldian. Banekien bazela zerbait, sumatzen eta sentitzen nuen, baina ez nintzen hitzetara ekartzeko gai, harik eta Lur Albizuk eta Erantz Saez de Egilazek eskuz esku idatzitako *Gureak ere badira. Desira, boterea, epika* irakurri nuen arte. Ezinbestean, arkatzezko pare bat zeinu, azpimarra batzuk eta paperezko belarritxo bat gehitu nizkion liburuari hogeita hamabigarren orrialdean.

Gizonei buruz ari direlarik, honakoa diote bertan bi egileek: "Duten lekua mantentzeko mekanismo handia da euren arteko maitasuna eta, kasik, lilura. Haien arteko elkarriketak ikusi besterik ez dago. Elkarri nolako miresmenez begiratzen dioten, zein intentsitatekin eztabaidatzen duten eta 'joe, zelako makina tipo hau' zenbatetan sentitu eta esaten duten".

Hamarnaka adibide datozkit gogora, eta azken udazken honetakoak dira asko eta asko. "Urlia [mutila] inoizko ondoen dabil" entzuten nien gizonei, gaur bai eta bihar ere bai. "Aditu al duzue sandiaren [mutila] ganbarako lana? Ikargarria!". Eta neure baitarako pentsatzen nuen baietz, egia izan zitekeela urlia eta sandiarena, baina niri beste hainbat izen

ere inolako nekerik gabe labaintzen ziztaizkidala mihi-puntaraino, ondo baino hobeto arituagatik ere gizonek behin ere ahotan hartzen ez zituztenak.

Albizuren eta Saez de Egilazaren arabera, "gizonek elkar limurtzen pasatzen dute denboraren zati handi bat. Pozik daude elkar ezagutzen dutelako eta euren burua asko maite dute, kolektibo bezala ere bai. Ez dute onartuko, baina elkar desiratzen dute". Gainera, "haien arteko eztabaida sutsuek ere badute sedukzio parte bat kitzikatzen dituen. Interes konpartitu batzuk dituzte, elkarren babesleku dira eta elkar maite dute. Anaiartea da duten leku erosoena".

Erreferenteren baten –edo kanturen, edo libururen, edo dena delakoren baten– inguruan galdetzen zidaten aldiro emakumeak aipatuko nituela erabaki nuen behin, eta ez naiz inondik inora damutzen. Egiari zor, gero eta errazagoa zait, behin honezkero nire etxeko apalategiak eta mahai-gainak liluratzen nauten emakumeen lanez gainezka baitaude. Jakitun naiz, ordea, hautu bat egin izanaz. Hautu politiko bat, funtsean, anaien sormen lanak goratzen eta laudatzen berez-berez ari direla uste izango duten gizonena bestekoa. ●

Albistegiak



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Aspaldian nengoen Teleberria ikusi barik, baina harira ez datozen arrazoiengatik parean tokatu zaizkit larunbat eta igande gauekoak. Eta argi geratu zait zergatik laga nion telebistako informatiboak jartzeari.

Duela urte asko oso gustukoa nuen albistegiak ikustea, baina denbora pasatu ahala, aspertu naute zeharo. Gero eta hutsagoak, gero eta berri ganorabakoak. Hotz handia denean, hotzaz dihardute. Eta elurra eginez gero, erdia baino gehiago malutek beteko dute. Ostean, kirolak eta berriro ere eguraldia.

Asteburuetakoa horietan aroa ezin protagonista izan, arrunta izan ze-

lako. Albisteak hornitzeko guztiek zituzten kaleko jendearen adierazpenak. Merkealdi hasiera zenez, hiriburu bateko oinezkoen berbak: gona bat eta zapatak erosi zituztela, 80 euro gastatu, nahi baino gehiago xahutu zutela... sei bat edo. Biziki interesgarria!

Igandekoan, ordea, Gabonen amaiera: errutinara itzultzeko gogoa, lanera bueltatu nahi ez... Oso argigarria!

Adierazpenok ez dira berriak, ingurukoekin izandako berriketaldi hutsalak baino. Igogailuko elkarriketa informatiboen muina bada, informatzea non geratzen da? ●



KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

Inguru erdaldunean eta Euskal Herriarekin lotura handirik gabe, nik ez nuen ulertzen zerk eraman zintuen ETako kide izan eta bi hamarkada baino gehiago kartzelan ematera. Hori galdetu nizun behin ardiekin mendian egiten genituen ibilaldietan. Zuk kontatu zenidan gure etxean bezala zuek ere gerrako galtzaile izan zinetela, eskola nazionalen galtzaileekiko bazterkeria jasan zenuela, frankismo garaiko askatasun falta, euskal ezaugarrien debekuak eta

Inguru erdaldunean
eta Euskal
Herriarekin lotura
handirik gabe,
nik ez nuen ulertzen
zerk eraman zintuen
ETako kide izan eta
bi hamarkada baino
gehiago kartzelan
ematera

Gure herrian bizitzeak, uneak, zure izaerak eta aldaketarako gogoak eraman zintuzten zure bidea egin eta ondoren

Azkenean ez zara Siberiara iritsi, baina ez dago eman duzuna adierazteko orotarririk, bereziki gure eskualdean aurrera egiteko hainbeste behar den, jende desberdina elkartzeko eta ondo sentiarazteko, ilusio, energia eta indarra. ●

EuskarAbentura

espedizioa



2023

IZEN EMATE EPEA IREKITA!

www.euskarabentura.eus

Babesleak














Laguntzaileak













Hedabide laguntzaileak












Borroka, maitasun eta traizio istorioak podkasta

Feminismoaren historiara hurbilpen txiki bat egiteko
bederatzi saio Beatriz Rubioren eskutik

Saio guztiak entzungai:  argia.eus/podcast



2.300 bideo baino gehiago ikusgai

Erreportajeak, film laburrak, dokumentalak, solasaldiak...

BERTAKO ERLE BELTZA

ERLEZAINTZAREN

GLOBALIZAZIOARI BIZIRAUN

EZINEAN

Erleen galera orokorraren inguruan asko irakurri dugu azken urteotan, baina gaurkoan, erlezaintzak Euskal Herrian bizi duen beste errealitate latz batez jardungo gara: bertako erle beltzaren desagertzeaz. “Kanpoko beste erle azpiespezieekin hibridatzen ari da erle beltza, eta gero eta zailagoa da bertakoa mantentzea. Ipar Euskal Herrian galdutzat eman daiteke honezkero; Hegoaldean ere gero eta hedatuago daude kanpoko arrazak eta egoera nabarmen ari da okertzen azken urteotan”, azaldu du Egoitz Galartza ERBEL Erle Beltz Hazleen Elkarteko kideak.

 GARAZI ZABALETA  DANI BLANCO

Europan ia erabat desagertua den erlearen gordailu modukoa dugu egun Euskal Herrian, “altxor bat”, eta horregatik ere nabarmentzen dute elkartetik ezinbestekoa dela berandu baino lehen erreakzionatzea eta neurri zehatzak hartzea. Zer dago, baina, bertako erlearen galera horren atzean, eta zergatik da garrantzitsua desagertzen ez uztea? Nola gertatzen da azpiespezieen arteko nahastea, eta zergatik suertatzen da galtzaile erle beltza partida horretan? Horretaz guztiaz aritu gara Egoitz Galartzarekin, eta erle beltzarekin diharduten baina egoera zailtzen ari zaien Arabako eta Lapurdiko erlezain banaren esperientziak ere jaso ditugu.

ERLE BELTZA, EDO ZERTAZ ARI GAREN "BERTAKO" DIOGUNEAN

Apis mellifera mellifera eta *Apis mellifera iberiensis* arrazak dira bertako erle beltza gisa izendatzen direnak. “Erleen kasuan, hesi geografikoek bereizi dituzte arrazak: *Apis mellifera iberiensis* Pirinioetatik hegoaldera dagoen azpiespeziea da, eta Pirinioetatik iparralderako Europa osoan, berriz, *Apis mellifera mellifera* da arraza”, azaldu du Galartza erlezainak. Bi arraza diferente izanda ere, jatorri bera dute, glaziazio ondoren Iberiar penintsulatik Europa osora zabaldu baitziren. “Euskal Herria justu Pirinioek bereizten dute, eta beraz, iparraldekoa *A. mellifera mellifera* litzateke, eta hegoaldekoa *A. mellifera iberiensis*”. Dena dela, azpimarratu du bi horiek oso an-

tzekoak direla, eta hurbilago dagoela Gipuzkoako erle beltza Lapurdikotik Andaluziakotik baino.

Azken batean, mendikateek ezarri dituzte mugak historikoki, erleak ez baitziren horiek gurutzatzera iristen. Baina, zer gertatzen da gaur egun? Erleak autoan mugitzen direla –tira, egokiagoa da “mugitzen ditugula” esatea– maiz, eta posible dela erreginak Internetez erostea eta kutxatxo batean munduko beste puntatik jasotzea. Erleen globalizazioak mugarri bat jarri du bertako arrazen bilakaeran eta biziraupenean.

“Batzuetan, ematen du ikuspegi nazi xamarra dugula bertakoaren purutasuna aldarrikatuta, baina genetikan horrela izaten da: bertako erlearen geneak hemengo baldintzetara eginak daude,



Egoitz Galartza ERBEL Erle Beltz Hazleen Elkarteko kideak erakutsi dizkigu bere erlauntzak, Lizarra eskualdean.



ERLE BELTZAREN EZAUGARRIAK

Fisikoki, izenak dioten bezala, azal guztia beltza izaten du –horregatik da erraza ikusi hutsean hibridutako erleetatik eta beste azpiespezieetatik bereiztea–. Gutxi selekzionatutako erlea da, eta portaeraren aldetik, mendikoa eta inguruari ongi egokitua, erlakumea botatzen nahiko zalea [ikus "erleak ulertzeko hiztegitxo" koadroan zer den erlakumea botatzea]. Guztiz erasokorra ez bada ere, badu bere izaera, erlezainek ongi babes-tuta joan behar izaten dute.

ERLEAK ULERTZEKO HIZTEGITXOA

Erle erregina: erlauntzako eme ugalkor bakarra, arrautzak erruten dituen bakarra.

Erlamandoa: erle arrak, eztenik ez duten bakarrak. Ez dute eztirik edo argizaririk ekoizten, ezta polenik biltzen ere, haien egiteko bakarra erregina ernaltzea baita. Behin funtzio hori beteta, hil egiten dira.

Erleen agresibitatea: bertako erlearen ziztatzeko joera da kanpoko arrazak erabiltzearen arrazoietakoa bat; horietako batzuk oso otzanak baitira.

Erlakumea botatzea: erlauntza zatitzea da, kolonia batetik bi egitea, haien ugaltzeko forma naturala. Erlauntzan erregina berri bat egiten dute, eta erregina zaharrak erle erdiekin alde egiten du. Hori da maiz airean edo adarretatik zintzilik ikusten duguna. Erlezainarentzat galera dakar, ezta egiten ari direnean botatzen dutelako erlakumea, ezti ekoizpena erabat etenez. Joera hori ahalik eta txikiena izatea bilatzen dute hibridazioarekin, beraz.



ohituta daude hemengo klimara eta klimaren aldaketetara, landaredira, eta badakigu nola portatuko diren urtean zehar", dio Galartzak. Egokitzapen lokala eta dibertsitate genetikoa azpimarrazten ditu erlezainak erle beltzaren garrantziaz hitz egiterakoan. Oso dibertsoa izanik, bere populazioko geneen artean denetik dago, eta horrek moldatzeko gaitasuna ematen dio. Alegia, aldaketak nagusi diren garaiotan, populazio horretan beti egonen direla erle batzuk egoera berrira egokitzeko gai izan eta biziraunen dutenak.

Aurrekoari lotuta doa dibertsitate genetikoarena. "Badirudi bertako erlea kanpoko arrazekin nahasteak aberastu egingen duela genetikoki, ezta? Bada, ez, justu kontrakoa gertatzen da, kanpokoaren geneek bertako erlearenak ordezkatzeko dituztelako, desplazatu, eta jatorri murrizteko geneak sartzen dira jokoan eta dibertsitate galera ekartzen dute". Lehen hemen ez zeuden geneak dakartzate kanpoko azpiespezieek, baina dibertsitatean irabazi beharrean galdu egiten da.

KANPOKO ARRAZEN ERABILERA, EDO ERLEEN OBSOLESZENTZIA PROGRAMATUA

Galartzak dioenez, gero eta jende gehiago iristen da erlezaintzaren mundura Interneten bidez, tokiko erlezain elkarreetatik izan beharrean. Horietako askok, kanpoko arraza hibridatuetara jotzen du bertako arrazetara beharrean: "Hibrido horiek oso ongi ari dira fun-

tzionatzen: erle onak dira, mantsoak eta otzanak, produktiboak, ez dute erlaku-merik botatzen [ikus "erleak ulertzeko hiztegitxo" koadroan zer den erlakumea botatzea]... arrakasta handia ari da izaten, batez ere Buckfast izena duen komertzial hibrido". Italiako *Apis mellifera linguistica* eta Balkanetako *Apis mellifera carnica* ere sartu omen da gurean.

Aipatutako komertzial hibrido horiek, ordea, tranpatxo bat dute atzean. "Batez ere erregina saltzen dutenei interesatzen zaizkie hibrido horiek. Zergatik? Zuk ongi funtzionatzen duen hibridoaren erosten duzu, baina hori bertako arrazako erleekin nahasten denean ezaugarri on horiek galtzen ditu, kaxkarragoa bihurtzen da. Eta, zer egiten duzu? Bada, berriz erosi". Alegia, Buckfast horiek beti eskatzen dutela itzulera bat... erlezaintzako obsoleszentzia programatua ote? Nekazaritzan hazi hibrido komertzialekin gertatzen dena dakar gogora kontuak.

HIBRIDAZIO PROZESUA, EDO ERREGINAREN ARRAZA ARTEKO KOPULA-HEGALDIA

Bertako erle beltzaren galeraren atzean, beraz, kanpoko arrazekin gertatzen ari den hibridazioa dagoela ikasi dugu. Baina, nola gertatzen da hibridazio prozesu hori? Hain erraza al da bertako erlea kanpoko azpiespezieekin nahastea eta bere ezaugarri propioak galtzea? Erleen ugalketa harrigarriaz Galartzak emandako azalpenekin, erraz ulertuko dugu baietz: "Erregina bat kanpoko er-

lamandoekin [ikus "erleak ulertze-ko hiztegitxo"ren koadroan zer den erlamandoa] nahasten denean gertatzen da hibridazioa. Erregina jaiotzean birjina da, eta erlauntzatik kanpora ateratzen da erlamandoekin estaltzera. Hegaldi horietan guztira 12-20 erlamandorekin estaltzen da, eta bera bizi den arte, betiko eramanen du barruan semen hori. Bizirik mantentzen du, behar duen heinean erabiltzeko". Txundigarria, ezta? Kalkulatzen da urtean 50.000 arrautza inguru jartzen dituela.

Baina, adi, zer esan nahi du horrek? Bada, erle erregina beltza kopula-hegaldian kanpoko azpiespezieko erlamando batekin –edo birekin, edo hirurekin...– estaltzen denean, nahasketa horretako arrautzak jartzen joanen dela urteetan, eta erlakumea urtero botatzen badu, hori hedatzen doala. Kontuan hartzekoa da, gainera, erle erreginak erlauntzatik urrutira joan daitezkeela, bi edo hiru kilometrotara, eta erlamandoek ere bost kilometro baino gehiago egin ditzaketela. Beraz, aukera handia dago

hamar bat kilometroko distantziara dauden bi kolonia harremanetan jartzeko. "Oso erraza da erlauntza desberdinetakoak nahastea, eta horrela behar du gainera, baina arazo bihurtzen da kanpoko erleak datozenean", gehitu du erlezainak.

Ipar Euskal Herrian, aurretik aipatu bezala –eta Mikela Untsainek ondoko koadroan kontatu digunez–, kanpoko arrazen erabilera guztiz zabaldua dago, ezinezkoa da hibridazioa ekiditea eta erle beltzarekin bakarrik lan egitea. Hego Euskal Herrian, berriz, Bizkaian nahiko hedatua omen dago kanpoko erabilera, baina Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan gutxiago. Hori bai, hiru toki horietan orain arte apenas arazorik izan ez badute ere, azken urteotan gero eta erle hibrido gehiago agertzen hasi dira eta erlezainak kezkatuta daude. "Neronek Lizarraldean ditut erleak, eta hemen ikusten dugu askotan erlezainak kanpotik datozela eguzkilorera edo koltzara. Agian 200 erlauntza dakartzate, eta horiek hemengoe-kin nahasten dira, ez baitago horren inguruko inolako kontrolrik".




MIKELA UNTSAIN, AZKAINE

Duela 20 urtetik da erlezain

"Gaur egun iparraldean ezinezkoa da erle beltzarekin bakarrik lan egitea"

"Hasieran erle beltza ez zuen inork hazten saltzeko, eta kaukasiarrarekin hasi nintzen. Hiru bat urtetara, Gipuzkoako Erlezain Elkartera hurbildu eta horien bidez jakin nuen bertako erle beltzaren identifikazio lanean ari zirela, kontserbatorio moduko zerbait garatzen, eta horrela hasi nintzen bertako erlea hemen, Iparraldean, berreskuratzen". Dioenez, inguru horietan bada kontserbatorioren bat oraindik, baina arazo nagusia da erregina-hazleek ez dutela erle beltza selekzionatzen, eta beraz, Hegoaldera edo Espainiara jo beharra dutela horiek eskuratzeko.

"Azken urteotan gero eta erlezain gehiago hasi da Iparraldean profesional gisa, eta horiek beste arrazetara jotzen dutenez, hibridazio arazo handiak daude. Profesionalizazioarekin lotura estua du, nire ustez, kanpoko arrazen erabilera. Ni, hasieran, erle beltzarekin bakarrik lan egiten saiatzen nintzen, baina orain, hibridatuak badituz horiekin ere segitzen dut, ez ditut hiltzen, bestela erlerik gabe geldituko nintzateke-eta. Erlekumeak haztean, hori bai, ama beltzen alabak erabiltzen ditut, eta beraz, urte guziz erle beltza sartzen ari naiz, hibridazio arazoa nolabait konpentsatzeko. Baina, bestela, argi dut: gaur egun Iparraldean ezin da erle beltza bakarrik hazi".



IBERIAR PENINTSULAREN MAPAK

A. m. iberiensis azpiespeziearen dibertsitate genetikoaren mailak erakusten ditu.

Lerro beltz jarraiak adierazten du azpiespezie iberikoaren eta *A. m. mellifera* (Pirinioen iparraldean) eta *A. m. intermissa* (Afrikaren iparraldean) azpiespezieen arteko banaketa. Lerro beltz etenek adierazten dituzte azpiespezie iberikoaren populazioak.

A mapan M (urdinez) eta A (gorriz) leinuen maiztasun haplotipikoen gradienteak iparretik hegora, mitokondrioko DNAREN azterketetan oinarrituta.

Gezi diagonalak adierazten du gradientearen noranzkoa. Gezi gorriak adierazten du gizakiak Afrika iparraldetik sarturiko populazioa.

B mapan Iberiar penintsulan dauden *A. m. iberiensis* populazioak, nukleoko DNAREN azterketetan oinarrituta.



“Hemen ez da aurretik inoiz horrelako hibridazio arazorik gertatu”

GORKA LEGORBURU, ARABAKO MENDIALDEA

Birgaragoienean, Sabandon eta Ataurin ditu erleak eta duela hiruzpalau urte izan zituen hibridazio arazoak lehenengoz



“Bi erlauntzetan izan genituen orduan arazoak, baina aurtun honez-kero bostetan atera zaizkigu. Hemen ez da aurretik inoiz halakorik gertatu. Aspaldi, erle italiarrekin probatzen hasi ziren zonalde honetan, baina negu gogorrean aurre egiten ez zieten, horretan gelditu zen kontua. Baina orain, gero eta gehiago ikusten hasi gara”.

“Guk orain urrunagoko leku batera daramatzagu erlauntzak erregina berriak ernaltzeko, hor oraindik hibridazio arazorik izan ez dugulako. Horrela, nolabait, arazoa saihesten dugu, baina gero eta kanpoko gehiago sartzen bada, ez dakit zer gertatuko den... Kanpoko arrazekin erraza da: erreginak erosteko bankuak dituztenez, beti mantentzen dute arraza purua, baina azkenean joko horretan sartzen zara: dena erosi, dena negozio”.

ERREGULATZEA, BIZIRAUPENERAKO AUKERA BAKARRA

Eta, hibridazioaren aurrean, zein aukera ditu bertako arrazarekin lan egiteko apustua egin duen erlezainak? Bi aukera: ezaugarri txarragoak dituzten hibridatutako erleekin lanean jarraitzea, edo hibridatutakoa baztertu eta berriz bertako erregina sartzea. Noski, bigarren aukera horrek gastua eta lana eskatzen die, eta bereziki sentsibilizatuak daudenek soilik egiten dute. Hala ere, erle beltzaren desagertzea ekiditeko irtenbide bakarra ikusten dute elkarrizketatutako erlezainek: “Kanpoko arrazen erabilera arautzea ezinbestekoa da, eta hori erabaki administratibo bat da”, dio Galartzak.

Erabilera hori debekatzea da ERBE-Letik eskatzen dutena, azpimarratzen baitute bata edo bestea hautatu behar dela, bateraezina delako bi arraza desberdin leku berean erabiltzea. “Diote merkatu librea dugula eta ezin dela zer erosi daitekeen eta zer ez arautu, baina zuk arraza hori erabiltzeagatik nik ezin badut nirea erabili... nola bermatzen da nire eskubidea?”, galdetzen du. Beste abere batzuen kasuan badira araudiak indarrean; Aralarren, esaterako, debekatua dago latxa ez den beste ardi arraza bat sartzea bazkaleku komunetan.



Argazki honetan biribilen barruan daudenak hibridoak dira, gorputz erdia horia dutelako nabarmentzen direnak. Gainerakoak bertako erle beltzak.

“Esan dugu Frantzia ia guztiz galdua dagoela *Apis mellifera mellifera*, Alemanian ere ez dago bertako erlerik, Errusia aldean mantentzen da, Irlandan irlatxo batzuk ere bai... baina esfortzu handiak egiten ari dira bertako erlea errekuaratzeko”. Euskal Herriko hegoaldean, zorionez, fase hori baino dezentez lehenago gaude, baina egoera horretara ez iristeko neurriak hartzeko deia da bertako erle beltza mantentzeko lanean ari direnek exijitzen dutena. “Arriskua hor dago, eta ez guke nahi hemendik hamar urtera kontserba guneak bilatu behar izatea, errekuarazio progra-

Egokitzapen lokala eta dibertsitate genetikoak dira erle beltzaren balioak. “Badirudi kanpoko arrazekin nahasteak aberastu egiten duela genetikoki, ezta? Bada ez, justu kontrakoa” azaldu du Galartzak

ma bat martxan jarri behar izatea... askoz hobea da neurriak aurretik hartzea”, amaitu du Galartzak. Bide horretan, bertako erle beltzaren hobekuntza eta kontserbazioa bultzatzeko helburuz, hautespen programa martxan du ERBELe. “Erreginei eta koloniar testak egin eta horien portaera neurtzen eta baloratzen dugu lehenik, eta ondoren, genetikoki daturik onenak ematen dituzten erreginak hartu eta hurrengo belaunaldiak ugaltzen ditugu”. Emaizta onak ematen ari da programa, eta Europa mailan aitzindari da. Bidea bakarrik egitea, baina, ezinezko izanen zaio elkarteari. ●

IGOR ASTIBIA, HEKIMEN

“Euskarazko hedabideak ez daude Jaurlaritzaren lehentasunetan”



Euskarazko hedabideei euskara sustatzeagatik legez dagokien dirulaguntzak Eusko Jaurlaritzarekin negoziatzen luze aritu da Hekimen, Euskal Hedabideen Elkartea. Baina euskarazko komunikabideentzat lortutako dirulaguntza nahikoa ez den bitartean sektorea egonkortzeko, 6 milioi euro banatu ditu Jaurlaritzak batez ere gaztelaniazko medioak laguntzeko, berriro ere agerian utziz zein hedabide indartzen eta zein baztertzen duten gure instituzioek, diru publikoarekin. Hekimeneko koordinatzaile Igor Astibiarekin hitz egin dugu.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO

Hedabideen artean 6 milioi euro banatu ditu Jaurlaritzak 2022 bukaeran, COVID-19ak eragindako kalte ekonomikoei aurre egiteko dela argudiatuta. Urtebete lehenago 5 milioi euro banatu zituen eta orduan bezala orain ere Vocento taldea eta Noticias taldea dira diru publikoz lagunduenak. Orduan bezala orain ere, euskarazko hainbat hedabide diru partida horietatik kanpo utzi ditu Jaurlaritzak, tartean ARGIA.

Komunikazioaren mundua aldaketa sakonak bizitzen ari da eta joera orokor horri gehitu zaizkio pandemia, bizitzaren garestitzea (tartean argindarrarena eta paperarena)... eta horrelako laguntzak behar-beharrezkoak dira eraldaketa egiten laguntzeko, kon-tua da laguntza horren diru banaketa

hori nola egiten den. 2021ean Jaur-laritzak dirua banatu zuen inongo deial-dirik egin gabe, dirulaguntza zuzen bi-dez, eta 2022an nolabaiteko irizpideak jarritz egin dute banaketa, baina berriz ere irizpide horiekin lerro-talde be-rak lehenetsi dituzte, talde handienak, hain justu alderantziz behar lukeenean: zaurgarrienak eta behar handiena du-tenak lehenetsi beharko lituzke diru publikoak, irabazirik ez duten hedabi-deak. Indartsuenak indartzen dituzten dirulaguntza hauek zer pentsatua eman beharko ligukete.

Egindako diru banaketa hizkuntza-ren ikuspegitik aztertzen badugu, are larriagoa da: euskararen herri hone-tan hizkuntza normalizazioaren alde ari diren hedabideak berriro ere kan-poan geratu dira: 2021ean ia guztiak eta 2022an gehienak. Talde handienak

saritu eta euskarazko komunikabideak kaltetu dituzte.

6 milioi hauen banaketa egiteko, irizpide batzuk ezarri ditu Jaurlaritzak, baina irizpide horien hautaketa ez da ulertzen erraza. Egunerokotasuna da jarri duten irizpideetako bat, baina zer da egunerokotasuna, gaur egun denok eremu digitalean ari zaretenean dagoe-neko? [hain justu, astekaria dela argu-diatuta utzi du ARGIA diru banaketa honetatik kanpo Jaurlaritzak] Kanpoan geratu dira baita ere hedabide espe-zializatuak... Zein hedabide unibertso nahi dugu? Diru banaketan lehenta-sunak ezarri behar badira, gure ustez irizpide bezala hizkuntzak pisua izan behar luke eta berdin herri ikuspegia lantzeak, baina euskarazko komunika-bideei kalte egiten dien irizpidea jarri dute: irismena.



Dela horrelako dirulaguntza berezien bidez, dela publizitate instituzionalaren bidez (alegia, instituzioek zein hedabideetan jartzen duten publizitatea, diruz ordainduta), diru publikoz beti berdinak indartzeak eta beti berdinak bazter uzteak zein desoreka sortzen du?

Panorama desorekatu batetik gatoz, eta desoreka apaldu beharrean, desoreka areagotu baino ez dute egiten halako dirulaguntzek. Publizitate instituzionalan desoreka sekulakoa da eta hor erabilitako irizpide bera erabili dute azken dirulaguntza honetan ere: irismena [zenbat herritarrengana iristen den hedabide hori]. Baina irismena zeren arabera? Euskarazko komunikabideok irismen oso handia dugu euskarazko hartzaile potentzialak kontuan hartuz gero, baina populazio guztiarekiko irismena hartzen da kontuan eta berriro ere kaltetuta ateratzen gara.

Gaztelaniazko nahiz euskarazko hedabideak denak joko-zelai berean jarri eta irismen handiagoa dutenak saritzea “tranpa” da, jakinik hartzaile potentzial erdaldunak hartzaile euskaldunak baino gehiago direla?

Hori da. Zaku berean sartu gaituzte denok, eta normalizatu gabeko hizkuntza batean ari garen heinean, ezin dugu hor lehiatu.

Eskaintza periodistikoaren pluraltasunari eta herritarren informazio eskubideari zein neurritan egiten dio kalte diru publikoaren banaketa desorekatuak?

Euskaraz ari garen sektoretik nabarmendu ohi dugu hizkuntzaren ikuspegitik egiten dugun ekarpena, baina ez da hori bakarrik, aniztasunaren eta informazio eskubidearen ikuspegitik ere egiten dugu ekarpena, gure funtzio soziala hizkuntzaren normalizaziotik harago doalako. 6 milioi euroen diru partida justifikatzeko, hain justu hedabideok dugun funtzio sozial hori nabarmendu dute administrazio publikotik, baina berriro ere talde handienak lehenetsi eta diru poltsa handiena haiengana baldin badao, sektorean denok bizi dugun eraldaketa prozesu sakonari aurre egiteko abantaila ematen zaie. Gerta daiteke abantaila horri esker hedabide talde handi horiek etorkizunean tresna eta

produktu erakargarriak eta berritzaileak eskaini ahal izatea eta guk ez. Ez dakit tranpa dagoen, baina desabantaila bai, eta erakundeek ez lukete desabantaila sustatu behar, alderantziz. Aniztasuna eta ikuspegi ahalik eta gehien bermatzea bultzatu behar lukete erakundeek, laguntzen bidez. Komunikazio sistema anitza sustatu beharko luke funtzio publikoak, funtzio soziala eta funtzio kritikoa indartzeko, ez ikuspegi bakar bat.

“Berriro ere talde handienei abantaila eman diete Jaurlaritzatik. Ez dakit tranpa dagoen, baina desabantaila bai, eta erakundeek ez lukete desabantaila sustatu behar”



Euskarazko hedabideen dirulaguntza ere hor dago, legez eman beharrekoak. Hiru urte daramazue negoziatzen, eta sektorea egonkortzeko eskatu duzuen diru kopurua gehitzea ezinezkoa zela entzun duzue Jaurlaritzatik. Bat-batean, ordea, 6 milioi euroko diru partida ateratu du, gehienbat gaztelaniaz funtzionatzen duten hedabideen artean banatzeko.

2019an lortu zen dirulaguntza eredu berri bat adostea, hain justu ez dadin egon irismenaren baitan, baizik sortzen diren berri eta edukietan oinarrituagoa, ekoizpenean, hedabideen egonkortasuna bermatzea eta hedabideen arteko lehia gainditzea helburu. Pauso garrantzitsua izan zen, baina hiru urte hauetan ez dugu lortu orduan finkatutako kostu estandarrek eguneratzea –2018-2019ko kostuen arabera ari gara, eta agerikoa da kostuak asko handitu direla– eta ez dugu lortu ezta ere dirulaguntzaren poltsa hori era esanguratsuan handitzea, benetako kostuak estali ahal izateko. Eusko Jaurlaritzatik esan digute ez dagoela baliabiderik mahai gainean jarri ditugun eskaerak asetzeko, eta bat-batean lehenengo 5 milioi euroko dirulaguntza eta hurrengo urtean 6 milioi eurokoa ateratu dute. Bai, harriduraz hartu dugu, eta azkenean lehentasun kontua da, politika

publikoek ari garen heinean beti baita lehentasun kontua, eta dirudienez euskarazko komunikabideak ez daude Jaurlaritzaren lehentasunen artean, gutxienez diru banaketan hori da ikusi duguna.

Euskarazko komunikabideen ordezkaritza dugun Hekimenetik jarraituko dugu behar den foroetan eragiten, euskarazko komunikabideen sektorea lehentasunen artean koka dezaten.

Lehentasun kontua dela diozu. Ez dago borondate politikorik euskarazko hedabideak lehen lerroan jartzeko?

Hedabideen Mahaia interlokuzio foro egonkorra jarri genuen martxan Jaurlaritzarekin eta positiboki baloratzen dugu, ikusten dugu gurekin intelokuzio hori mantentzen duen sailak baduela gure sektorea sustatzeko borondatea, baina gero, ikusitakoak ikusita, diru banaketa beste nonbait erabakitzen dela dirudi. Ogasunak langa jartzen dio Jaurlaritzako sail bakoitzari, eta guri esan zaigu aurrekontuetan ez dagoela baliabide handitze esanguratsurik gure sektorearentzat. Eragiten jarraituko dugu, urteroko aurrekontuetan poltsa hori handitu dadin, bi helbururekin: batetik sektorearen egonkortasuna bermatzeko, eta horrez gain sektoreak beharrezko dituen berrikuntza prozesuak sustatu ahal izateko.

Sektorea egonkortzeaz ari zara, baina euskarazko hedabideen dirulaguntzetan, kostuek gora egin duten garaiotan, aurreko dirulaguntzetan baino diru gutxiago jaso duen hedabiderik bada.

Bai, euskarazko hedabideentzako dirulaguntzen egungo ereduak oraindik hutsuneak ditu. Bat bada oso esanguratsua eta urteotan behin eta berriz esan diegu: ekoizpen handitze esanguratsu bat edo hedabide berri bat deialdira aurkezteak ekarri behar du horietara bideratzeko baliabide gehiago, bestela emaitza da poltsa mugatua izanik beste hedabideei eragiten diela, alegia besteei dagokien dirutik hartzen dela, eta hori da euskarazko hedabideentzako azken dirulaguntzetan gertatu dena. Egoera paradoxikoa da: berez berri ona da euskarazko hedabide berri bat sortzea eta ez genuke kezka bizi behar, baina proiektu berri batek eragiten du besteei dirua murriztea, eta horri gehitu behar diogu bizitzaren –kostu estandarren– garestitzeak erabat gainditu duela 2019an adostu genuen diru poltsa.



“Jaurlaritzatik esan digute ez dagoela baliabiderik mahai gainean jarri ditugun eskaerak asetzeko, eta bat-batean lehenengo 5 milioi euroko dirulaguntza eta hurrengo urtean 6 milioi eurokoa ateratu dute”. Irudian, Hekimeneko eta euskal instituzioetako ordezkariak pandemia garaiko argazki batean.

Azken finean, euskarazko hedabideen dirulaguntzek lehian jartzen gaituzte komunikabide batzuk eta besteak. Bestelako formularen bat hobesten al duzue, bakoitzak dituen beharrei erantzuteko aproposagoa?

Hori da, lehia gaitutako duen sistema berri bat adostu beharko genuke, ezin dugulako egon batzuk besteei begira, bakoitzak zenbat diru jaso duen: perbertsoa da. Hedabideek behar dutena da berme bat ziurtatuko diena egiten duten lan horren arabera baliabideak izango dituztela, deialdi bakoitzaren aurrean ziurgabetasuna nagusitu ez dadin, eta formulak egon badaude horretarako, dela hitzarmen bidez edo

“Euskarazko hedabideen arteko lehia gaitutako duen dirulaguntza sistema adostu beharko genuke, ezin dugulako egon elkarri begira, bakoitzak zenbat diru jaso duen: perbertsoa da”



beste bide batzuk erabiliz. Borondate politikoa dagoenean denetariko formulak daudela ikusi dugu: 2021ean 5 milioi euro banatu zituzten inongo deialdirik egin gabe, 2022an deialdia egin zuten baina baldintza gutxi eta jakin batzuk jarrita...

Formatuen, euskarrien, kazetaritza ereduen... berrikuntza zeinen inportantea den aipatu duzu. Instituzioetatik laguntzen ari al dira bide horretan, sinesten al dute apustu horretan?

Ez da erraza izaten ari beste sektoreekin egiten den bezala berrikuntzarako gure sektorerako diru bat bideratzea lortzea. Eusko Legebiltzarreko alderdiekin bi erronda egin ditugu eta hasieran hitz politikak ziren dena, baina gero apenas bideratu den dirurik. Eusko Jaurlaritzatik esan ziguten berrikuntzarako dirua behar bazen, proiektuak jartzeko mahai gainean, eta hala egin dugu, proiektuak aurkeztu ditugu, baina proiektu horiek behar duten baliabideen %3 inguru baino ez dute onartu. Jaurlaritzak zein errelebantzia ematen digun euskarazko hedabideei, hori da gakoa, eta jarraituko dugu saiatzen, botereguneetan aintzat har gaitzaten. Poliki-poliki ari gara bide horretan.

Hekimenen erronka nagusiak zein dira epe labur-ertainean?

Baliabide gehiago eskuratzea; sektorearen ezagutza eta hobekuntza pausoak ematea; eta elkarlanean sakontzea. Azken finean, sektorea eraldaketa prozesu bizian dago eta Hekimenetik prozesu horiek laguntzea da gure funtzioa, hedabideei formazioa eskainiz, elkarlana sustatuz, baliabideak eskuratzuz... ●

bertako
igogailuak | ascensores

-rekin BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz orrezteari mantentze fakturon
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertoko.eus

'SAGARRONDOTIK' GEHIGARRIA

Sagarrak ez du sagardoa bakarrik ematen

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Sagarrondoen aurtengo uzta dastatzeko egunak kontatzen ariko zarete irakurle asko. Ez omen da sagar urtea izan eta tokatuko zaigu hango eta hemengo barietateen zukua edatea, baina gustura ibiliko gara upel artean. Nora jo ez dakienak laguntza du *Sagarrondotik* gehigarrian, sagardotegien gida jarriko baitzuegu eskura, telefono eta helbideez gain, sagardotegi bakoitzaren berezitasunak azpimarratuz.

Sagarrak, ordea, ez du sagardotarako bakarrik balio eta ARGIA ahalegintzen da zuku guztia ateratzen eta fruta-arbora honi lotutako hainbat elkarrizketa eta erreportaje dakartza aurtengo ere monografikoak.

Usurbil, Astigarra eta Hernanitik harago ere makina bat sagar badago! Garazi Zabaletak Baztanen topatu du "sagarraren azken mohikanoa". Hala esaten diote, "zuhaitzak landatzen dituen gizona" deitzen ez diotenek, Pello Mendikoa Maritorrenari. Harekin eta hari erreleboa eman dioten Xabi Torres Letona eta Mirentxu Mendikoa alabarekin egon da kazetaria, sagarraren aitzakian hamaika istorio jasoz. Horratx aurtengo lehen fruitua.

Eduardo Zubiriarekin egindako elkarrizketa da bigarren gozokia. Bada sagar-

dogintza eta artea lotzen duenik eta Jon Tornerrek aurkitu du Imotzen. Zuhaitzen txertaketalanak, 1.000 metrotik gorako altueran loratu eta fruta eman dezaketen barietateak eta sagarrarekiko pasioa izan dituzte hizketagai, baita bere sorkuntza lanak ere. Nola uztartzen diren? Elkarrizketa irakurtzeko gonbita hemendik.

Eta badakigu sagardoa aspaldiko zukua dela, arrantzaleek Ternuarainoko bidaletan eramaten ei zuten edaria zela eta itsasaldian eraso zezakeen eskorbutoari aurre egiteko C bitamina zuela. Baina hitza bera, sagardoa, noiz agertzen da idatzita? 1646ra garamatzan prentsa-artikulu bat bilatu du Jon Tornerrek Sagardoetxea museoaren dokumentazio basean ikusmiran. Nork eta nola aipatzen ote du, baina, sagar-zukua?

Hori eta gehiago jakiteko argitaratu du aurtengo ARGIAk astekariaren zenbaki honekin batera iritsi zaizuen *Sagarrondotik*. Gozatu 2022ko uztaz! ●



Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Lan ona egiten duzuelako"

Hernanitik Ionek

"Euskal hedabide sendo eta independenteak edukitzea galdu ezin dugun luxu ikaragarria delako.

Gure hizkuntzatik eta ikuspegi kritiko batetik begiratzeko leiho eder bat delako ARGIA"

Zubietatik Aitzolek

"Euskara ikasi eta informazioa jaso nahi dudalako"

Iruñetik Juliak

"Kalitate onekoa eta interesgarria iruditzen zaidalako ARGIA"

Ordiziatik Iñakik

"Euskaraz delako eta gaien lanketa txukuna egiten duzuelako"

Senosiaindik Edurnek

"Badelako garaia ARGIAk egindako lanari esker jasotakoaren truke zerbait egiteko"


Herbehereetatik Ionek

"Astekaria euskaraz egiten duzuelako, euskarari zabalpen handia ematen diozuelako, eta oso jatorrak zaretelako :-) :-) :-)"

Bilbotik Patxik

"Bihotzaren eta justiziaren alde"

Azpeititik Simeonek



Lehen transfusio odoltsua



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Erroma, 1492ko uztailaren 25a. Inozentzio VIII.a aita santua hil zen 59 edo 60 urte zituela, odol transfusio saiakera baten ondoren. Giovanni Battista Cibo –hori zuen benetako izena– koman omen zegoen, hidropesiak jota, Giacomo di San Genesio sendagile judutarrari sendabide berritzailea bururatu zitzaionean: gazte osasuntsuen odola sartuko zion. Berehala hamar urteko haur “boluntarioak” topatu zituzten –senitartekoei urrezko dukat bana eman zieten behintzat–. Emaileei karotidan ebaki bat egin omen zieten odola ateratzeko eta, jakina, hantxe bertan hil ziren. Odola kopa batean jaso eta gaixoari ahotik sartzen saiatu zen mediku judutarra. Bertsio baten arabera, une horretan aita santua esnatu omen zen eta, gertatzen ari zena ikusita, medikua epaitzeko agindua eman zuen, baina San Genesio ihes egitea lortu zuen. Eta Inozentzio zirkulazio buxadurak jota hil zen.

Stefano Infessura kronikariak jaso zuen pasadizo horren berri, baina bere testigantza zuzenik ez zaigu iritsi. Hau da, beste autore batzuek egindako erreferentzietatik jasota dago, eta bertsioak ez datoz bat.

Gainera, Filippo Valorik heriotzaren kontakizun guztiz desberdina egin zuen: Inozentzio asko argaldu zen, ez zuen elikagaiak hartzeko gaitasunik eta, halako batean, sukarrak jota hil omen zen.



Eliza katolikoaren aldeko egileek, esaterako, Vittorio Messori kazetari eta idazle katolikoak, uste dute transfusio saiakera ez zela gertatu eta eliza katolikoaren aurkako legenda beltzaren parte dela salatu dute.

Baina, beste aita santu asko bezala, Inozentzio VIII.a bera izan zen legenda beltz hori elikatu zuena. Konklabean bere aldeko botoak erosi zituen, Vatikanoren baliabideak xahutu zituen, nepotismoa praktikatu zuen inongo lotsarik gabe,

sorginkeriaren kontrako bula bat atera zuen interes politikoak medio, gutxienez zazpi seme-alaba ez legítimo izan zituen... Errenazimentu garaiko beste aita santu batzuk bezala, esklabotza onartzen zuen, esklaboak kristautasunera konbertitzeko aitzakian. Bere agintaldian Vatikanoa esklabo merkatariekin tratutan ibili zen, eta Fernando Aragoiok ehun esklabo oparitu zizkionean, kristau berriak hezteaz kezkatu ordez, bere aldeko kardinalen artean banatu zituen. ●



MYHERITAGE

Denboraren makina argazkitan

MyHeritage enpresa erabiltzaileen DNA azterketak eta zuhaitz genealogikoak egiteagatik da ezaguna, eta berriki zerbitzu berri bat atera du, AI Time Machine izenekoa.

Erabiltzaileak bere argazkiak aplikaziora igo (gutxienez hamar) eta, adimen artifiziala erabiltzen duen programa baten bidez, bere burua his-

toriako hainbat garaitan karakterizatu jasoko du.

Enpresaren beste produktuak bezala, hau ere ordainpekoa da, baina zerbitzu berria sustatzen ari direnez, doako eskaintza mugatuak ere egiten ari dira; programak 60 garaitako irudi-sortak eskaintzen ditu eta, oraingoz, 20 sorta ematen ari da doan. ●

ZUHAITZ TTIPI IZUGARRIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



Asteroko papertxo honetarako, kolkoa landarez betetzeari eman diot urte hasiera. Kolko-koenetakoen arteko bati helduko diot, eta bere ele-mandazain nator-kizu. Oso gurea dugun zuhaitz ttipi bat da, baina ez dut bere izenik aipatuko. Huts egin gabe ea igartzen diozuen. Asmakaiari ekiteko hutsak berak asko dio bere adarrei buruz...

Zuhaitz eitez ttipia bada ere, izatez izugarria da. Ezin konta ahala arrazoi badago izate hori aitortzeko. Etxe ondoan, atarian eta oilategian, maiz ikusten da. Santi Onaindiak ederki jaso zuen bere baserria deskribatzen zuten olerkien arteko “Zugaitz artean” deitutakoan. Hobe esanda maiz ikusten zen. Gure nagusitasun usteak buhatuta aurrekoen landareen jakintza gutxietsi eta gero eta pantailazkoagoak gara, eta etxe inguruan ere igartzen zaio. Hala ere, bizitzen ari garen garai eder honetan sumatzen dut zuhaitz hori bueltan datorkigula, bere premia sentitzen da.

Etxe inguruan nahi izan dugu, zeregin ugaritarako zeharo aproposa baita. Berak sugeak, lapurrak eta jendilajea uxatzen ditu. Sugeak uxatzeko atari ondoan, ukiulu sarreran eta aziendaren azpian

azpian jartzen zen. Jendilajearena argi dago: jarri bat, azkar, ate aurrean.

Gurtzen dugun landarea da. Udako solstizioan bere eragin ona lortzeko, ateetan jartzen zen eta bere loreari “san juan lili” esaten zaio Erronkarin. Galizian “bieiteiro” edo “bedeinkatu” esaten zaio. Bere adaburua iratxoan eta intxi-xuen etxea zela uste zen eta, haiek ere gure lagun zirenez, adarrak zaindu egin behar. Ez zen nolanahi moztzen bere adakirik, lehenik barkamena eta baimena eskatu behar zitzaizkion. Jostailuak, txilibituak eta abar egiteko erabiltzen da bere zura. Alemanian ohikoa zen bere aurrean kapela kentzea, bertan bizi den Holda (Ederra) jainkosa agurtzeko; Holda jakituria eta ontasunez beteak ugalkortasunean, haurdunaldian eta erditzean emakumeei laguntzen die. Esaera bat ere badute: “*Vor den Holunder soll man den Hut abnehmen*”, bere aurrean buruhastu behar da.

Etxe utzietsietan maiz ikusten da. Bere alea gozoa da oso, eta txoriek maite dute. Ugalduek ere beraiek egiten dute, fruituaren mamia jan eta hazia zirinetan banatuz; bere ondorengoak elikatuko dituzten zuhaitz berriak ereiten dituzte. Guretzat ere jangarri gozoa da,

eta marmelada, erreximenta, konfitura eta antzeko ugari egiten da. Baita edari ahulak eta uxualak ere. Erle eta polinizatzaile ugarirentzako festa dantzagarria eskaintzen duten bere lore laruekin edari apardun harrigarria sortzen da, eta beste edari batzuk ontzeko ere badarabilte, sagardoa adibidez.

Sendabelar ikusgarria da: lorea, azala, fruitua... Zer ez du osagai! Era guztietara eta makina bat gaitzi aurre egiteko erabiltzen da.

Satorra uxatzeko ere hura dabilen lurretan bere adarrak sartzea ona omen da.

Nor ote da? ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Nonahi ikusten ari naiz, baratzeak goldetu eta gero hostoz tapatuta uzten. Baina nire zalantza da, ez al da hobea hotza lurrarentzat? (Goretti)

Orbela lur gainean hedatu eta hura erabat estaliz, lurra hotzetik babestu eta lurreko bizitzari eutsi egiten zaio; bitartean, orbela desegin ahal ongarria izango da. Ongarri berdea ereiten dugunean ere antzeko zerbait lortu nahi da, gero ebaki eta benetan ongarri bihurtu arte.

Lurra soilduta uzten bada, hotza barrenerraino sartuko da, ondorioz bertako mikroorganismo batzuk, onak eta kaltegarriak hilko dira. Hotzak lurra harrotu egingo du. Baina azala agerian izanda, lurra erreko du eguzkiak, hotzak bezala eta euria egiten duenean lurreko jakiak mugitu eta alde egiteko arriskua dago.

Beraz, zeuk erabaki... ●

JEINGENEKOA

“ESNEKIEN ERALDAKETA GURE GAIN HARTU GENUEN, HAIN MENPEKO EZ IZATEKO”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Etxarri-Aranazko esneki enpresa da Jeingenekoa. 2005ean Aberri eta Urtzi Barandalla Fernandino anaiek baserriari eta gurasoen esne-behi ekoizpenari jarraipena ematea erabaki zuten, baina lan egiteko moduan aldaketa nabarmenak egin zituzten, kanpoko enpresekiko menpekotasuna ahalik eta txikiena izan zedin. “Urte batzuetan kanpoan lanean aritu ondoren, baserritik bizi nahi genuela erabaki genuen, baina ikusten genuen independentzia irabazteko ezin genuela esne guztia zentralera saltzen eta janaria kanpotik erosten jarraitu”, azaldu du Aberri Barandallak. Edurne Albarracin Igoarekin batera, hiruak dira bazkideak, baina guztira hamar bat langile aritzen dira proiektuan, sa-soiaren arabera.

BAZKA EKOIZTEN

Ekoizten duten esnearen zati bat zentraleri saltzen jarraitzen dute gaur egun oraindik Jeingenekoa, baina beste zati handi batekin euren esnekiak egiten dituzte. “Behi gazta, jogurt naturala, gazta freskoa, esnea, krema zabalgarria eta errulua, horiek dira egiten ditugun produktuak”, dio Aberri Barandallak. Etxean bertan eraldaketak egiteko gunea eraiki zuten proiektuko kideek, eta asteen bi edo hiru egun ematen dituzte lan horretan. Hori izan zen anaiek erreleboa hartzerakoan egin zuten apustu nagusietako bat, baina ez bakarra.

“Gure lurretan behientzako nahikoa bazka sortzea da gure filosofia, kanpoko enpresei ahalik eta gutxien erosi behar izateko eta alor horretan ere dependentzia gutxitzeko”, azaldu du. Dena dela, jasotakoaren arabera moldatzen joan behar izaten direla gehitu du, izan ere, aurtengo lehortearen ondorioz arto eta



belar oso gutxi bildu dute, eta urte gogorra aurreikusten dute. Esnetarako behiak etxaldean izaten dituzte, barruan, jezteko makinaria bertan dutelako eta etxalde inguruan behar adinako lursailik ez dutelako. Haragitarako behiak ere badituzte, eta horiek bai, kanpoan izaten dituzte bazkatzen. “Horiek urtearen zati handiena kanpoan pasatzen dute, eta uda partean Urbasara igotzen ditugu”, dio.

SAKANAKO NEKAZAL MUGIMENDUEN PARTE

Lehen sektorearen eta bereziki esne behien sektorearen egoera kritikoaz jakitun, elkarlanaren alde egiten du Barandallak: “Gure artean elkartzea eta kooperatiba moduko zerbaite sortzea bide ona litzateke, gaixotzeko eta oporrak hartzeko eskubidea guk ere izan

dezagun. Bestela, zaila da egoera gaur egun, eta gazte bat hutsetik hasia ezinezkoa da”, dio. Bide horretan, Sakana nekazaritzaren bueltan sortu diren hainbat egitasmotan parte hartzen du Jeingenekoa, hala nola, agroekologiaren aldeko Belardi elkartean edo Sakana Dastatzen ekimenean.

“Gure bolumenak ez dira oso handiak, ohiko kopuruetatik dezente beherago aritzen dira gure behiak, baina kalitatea da gure alde indartsua. Azkenean, gertutasuna dugu oinarri eta banaketa ere guk geuk egiten dugu”, gehitu du. Denda txikietan, jatetxeetan, kontsumo taldeetan eta azoketan saltzen dituzte haien esnekiak, eta Altsasun ere badute esnehornitzaile bat. “Bakoitzak bere formula eta txokoa bilatu behar ditu”, amaitu du Barandallak. ●

'IXILIK NAHI GAITUZTENEAN, MARI'

“ ”

Aitortza eta memoria, fikziotik ere bai

Oñatiko Antixena Gaztetxeak hamar urte bete ditu 2022an, eta urteurrena aitzakiatzat hartuta, irabazi asmorik gabeko ikus-entzunezkoa egin dute asanbladako kideek. Iragana dokumentatzeko zuten ideia fikzio bezala proiektatu da azkenean. Eta fikzioa, oso urrutira joan gabe, izan zitekeen errealitate. Alegiazko Oñatiko herrixkan gaztetxea desjabetuko du udalak; oso present egongo dira iraganeko borroken memoria, antolakuntza eta borroka gisako kontzeptuak.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO

2032. urtea da, uda-sasoia, eta ate azpitik eskutitza jaso dute beroaz ihesi-edo harrizko lau hormen artean elkartu diren lau gazteek. Eskutitzak dakarren mezuak hitzez hitz dio, garai batean Oñatiko ostalaritza-eskola zena eta ondorengo Antixena Gaztetxea, bi asteko epean utzi egin beharko dutela egungo erabiltzaileek, kultur-espazio gisa erabiltzen hasteko asmoa duelako eraikinaren arduradun eta gutunaren sinatzaile den Oñatiko Udalak. Pentsatuko du udal-gobernuak, kultur-eskaintza aberasteko eraikin modernoa falta duela Oñatik, eta bada garaia herriari espazio seguru eta askotarikoa irekitzeko, Antixenak halako funtziorik beteko ez balu bezala. Edonolako ezerk ez du balio boterea duenarentzat, eta agintariekin erabili-ko dituzte ziur *abangoardia* eta *eraikin*

alternatibo gisako terminoak, kultur elkargune bat-edo eraikitzeak argudio gisa. Kolektibo jakin batzuk beti soberan egongo dira batzuen begietan, Oñatin bezala, baita Euskal Herri eta mundu osoan ere.

Baina alegiazko kasuaz baino ez gara ari. Fikziozko pelikula egin dute Antixena Gaztetxeako kideek gaztetxearen 10. urteurrenaren harira, *Ixilik nahi gaituztenean, Mari* izenburupean. Asteroko asanbladatik sortutako ideia gauzatze-ko, talde-motorra osatu dute Anjel Lera, Mikel Garai, Xanti Ugarte eta ARGIArekin hitzordua egin duen Jone Markuletak (1999, Oñati). Fikziozkoa izatea bada bereizgarri, ez baitira gutxi bestela ere gaztetxe eta herri-mugimenduen inguruan egin diren ikus-entzunezkoak, baina oro har ezagun egin diren guztiek dute jarduna dokumentatzeko xedea.

“Eta gu ere bide horretatik gindoazen: egun bedeinkatua hura, dokumentala ez eta fikzioa egitea erabaki genuena!”, dio irribarre batez Markuletak. Herriko hainbat ikastetxeetan filma aurkeztu eta nerabeei gaztetxeako proiektua gerturatzeko ariketa egin berrikan jarri dugu hitzordua Markuletarekin. Antixena Gaztetxean, non bestela.

► Konbentzitu zintuzteten beraz, fikzioa egiteko.

Bai. Kontua da, aurreko gaztetxe eta mugimenduei begira jarri eta, zer egin behar genuen, gaztetxe bakoitzeko kide bat elkarriketatu? Antixenak 10 urte egin ditu adibidez, eta besteak denetarik; bat edo beste egun bateko okupazioak ere izan ziren. Zaila zitzailgun neurtzen bakoitzari ze espazio



eman. Aitortza ze egingo genien bada, lau edo bost pertsonari? Horrexegatik, fikzioa egitea erabaki genuen. Baina dokumentalaren izaera guztiz galdu gabe, ez ginen-eta gai. Lagun batek esaten zigun: “Dilistak makarroiarekin jatera zoazte”. Izan ere, eszena batean, aitarren hitzartzean, paragrafo luze-luze bat geneukan aurreikusia iraganeko okupazioen berri emateko. Baina hori, oso luze. Dilistak makarroiarekin. ◀

Fikzioak zabal ditzake ateak bide gehiago eta ezberdinak urratzeko, eta aspektu horrek izan du garrantzia apustu hori egitean. Desjabetze-mehatxuari fikziotik ere hel dakiokela erakutsi dute, nahiz eta kasik etengabeko erreallitate izan hainbat auzo eta herritan. Dena den, era egonkor edo desegonkorragoan jardun, ezeren gainetik, gaztete eta kolektibo orok duen helburua da filmarekin Oñatin bete nahi dutena

ere: herriari gaztetxea bezalako espazioa ireki eta hainbat pertzepzio deseraikitzea; “indiferentziei aurre egitea”, Markuletak adierazi bezala. “Jarraituko du jendeak gaztetxetik kanpo sentitzen, eta jende batek beti izango du berea ez den eta inoiz izango ez den leku denaren pertzepzioa”, uste du, baina ezin senda daitezkeen arrakala horietan gehiegi sakondu gabe, daukagunera ekarrita, baietz dio irribarre txiki batekin: jendea identifikaturik sentitu da pelikularekin.

Militantzia egiteko beste modu bat sortu dela adierazi du, produkzio lantaldean egon den pertsona multzo bat ez delako sarri gaztetxera gerturatu eta pozgarria delako hori. Herrian zilegitasuna irabaztea giltzarri izan ohi du espazio okupatu eta autogestionatuak, baina hortik urratsa eman eta jarraikotasuna eta jariora bermatzeko lanketa ere beharrezko du; gero, erronka moduan eta filmean ageriko den gisan, ea desjabetze baten aurrean baden gai jendea bildu eta mamua geratzeko, protesta egiteko bederen. “Hala balitz, hor [Antixena] beheko eskailerak beteta egotea gustatuko litzaidake, hala imajinatzen dut desjabetze baten aurrean; eta filmean, ez zen hainbeste jende mugitu, baina asko zen eh, eta asanbladako kide ez diren dezentelartu genituen”.

BARE ETA EGONKOR

Hamar urte igaro dira ostalaritza-eskola zena okupatu eta Antixena Gaztetxea martxan jarri zutenetik, eta kosta bada ere, era egonkor batean jarduteko zilegitasuna irabazi du espazioak. Uneotan behintzat, alegiazko egoera batean soilik ager daiteke desjabetzearen mamua. Edo fikziozko pelikula batean bestela, bere burua desjabetua irudikatzen duen asanblada baten ekimenez gainera. Jarduna, gaur egun, konstantea dela dio Markuletak, eta era berean horrekin batera giroa lasai dagoela uste du. “Egonkorregi” aukeran, agian.

► Zergatik diozu hori?

Orokortasun batean ezin dezaket hitz egin, baina askok partekatzen dugun sententzia da erosotasun batean sartu garena, ondo irabazitakoa urte luzetan zehar. Eta ez dut esan nahi ez dugunik ezer egiten; kultur-eragile erreferentia da Antixena, hemen astebururo gauza asko daude eta jende pila bat bueltaka; eta jo, orain pelikula bat egin da. Asko da. Baina horixe diot, ez daukagula agian



lehen zeukaten segurtasun falta. Nik urte batzuk badaramatzat hemen eta etorkizunari begira oso lasai egon gara beti, ez da inoiz aparteko kezkarik egon. Eta noski, hobe [barreak]. ◀

Halako egoera lasairik ez du inoiz bizi izan Oñatiko gazte mugimenduak. Hori ziurtzat jo du Markuletak, baina iraganaz xehetasun askorik ez dute gaur egun gaztetxeko kide direnek. Filmerako, behar eta nahi zutelako, makina bat elkarriketa egin dituzte iraganeko gertakarien berri lehen eskutik jasotzeko, eta handik eta hemendik, heldu dira ustezko jatorrira-edo. Eta jatorri hori kontatzeko moduak pelikula bat dirudi. Izan ere, eta antza denez, 1982an oñatiar batek Berlinera egindako bidaiatik sortu zen balizko autogestio proiektu baten ideia.

“ ”

Sentsazioa da erosotasun batean bizi garela; segurtasun falta gutxi daukagu”

Ustez eskutik heldu ziren irrati libre eta fanzine propioak Debagoiena bailara. Finean, eta pelikulan ere erakusten den harrotasun puntu berarekin, Euskal Herriko lehendabiziko gaztetxea Oñatin ireki zuten –ahoz ahoko ofizialtasunaren arabera, *gaztetxe* terminoa erabiltzen lehenak izan ziren–. Olaiturriko gaztetxe hura 1986an desjabetu zuten.

Gerora beste bederatzi okupazio ezberdin egon dira, eta gatazka asko sortu eraikinen jabe eta erakundeekin Markuletaren arabera. Gose-grebaren bat ere izan zen tartean, eta kanpaldiak ugari udaletxearen atarian. Ustez eraitsiko ez zen udalen jabetzako lokal okupatu baten kasua oso gogoan du elkarriketatuak, artean nerabea zela, ustekabeen goiz erdian desjabetu zuen Udalak eta ikastetxetik ihes eginda bertara joan eta bertatik bizi izan zuten makina bat gaztek. Lehen hartu emanetako bat gaztetxearekin, desjabetze baten ikusle izatea izan zen.

► Premia sortu zen herrian gaztetxe bat edukitzeko, eta Udala asko babesten zen gaztelekua bazegoela esaten. Baina horrek ez zuen balio, eta ez du balio, ez baikaude gu hor. Zuek zaudete, eta horrela ez da gaztetxea izango. Beti egongo gara zuen menpe, eta zuek hori nahi. Eztabaida puntu horretan zela sartu ziren San Martinen, eta ordurako bazegoen kalean presentzia. ◀

Kaleko presentzia, borroka eta antolakuntza; horixe da Marik bultzatu eta azpimarratzen duena pelikulan zehar. Desjabetzeari aurre egiteko antolatuta, indarrak batu, kalean presentzia bermatu eta borroka egitea, alegia. Baina huts-hutsetik ere ez da abiatuko Mari; begiratu du atzera, nahi gabe ere, ondo ezagutzen dutenen eskutik.

ATZERA BEGIRATZEKO LEIHOA

Aipatu dugu lehenago, jarraikortasuna, jarioa eta belaunaldi aldaketak ematen jakitea funtsezko izan daitekeela kolektibo baten biziraupenerako, eta zentzu horretan autokritika egin dute Oñatin. Izan ere, eta bere ezezagutzatik, Mar-



Iraganeko gaztetxe, okupazio, manifestazio eta hamaika ekintzetako argazkiak ikusgai daude Antixena Gaztetxeko paretetan.

kuletak aitortu du bazuela beldur puntu bat, iraganeko gaztetxeetako kideek nola har zezaketen pelikulako edukia; kontatu behar zuten historia behar bezala egin den ala ez, alegia. Bazuten kezka aitortza egin nahi eta edukian huts egiteko. Baina ez da antza halakorik gertatu, dio pozarren. Erantzun oso ona jaso dute herrian.

Dena den, buruhauste horri alderantziz ere begira diezaiokegu, muinean zer dagoen aztertu eta kritikari bide emanda.

► Kritika ere nahi genuen egin, nolabait ere esanez Marik ez dakiela ezertxo ere ez iraganeko borrokez, eta oro har, gaztetxe eta gaztetxe mugimenduen iraganaz. Nor ibili zen eta non adibidez, gutxi. Ezezagutza handia somatzen da hor, dena oso itxia balego bezala. Eta orain, niri horrela galdetuta, alde batetik esango dizut baietz, Antixenan beti daudela ateak irekita; baina beste alde batetik ezezkoa emango nizuke, uste dut.

Ateak ireki arren, informazioa trukutzen jakin behar da.

Nik ere banekien gaztetxe gehiago egon zirela Oñatin, baina ez nekien hainbeste mugimendua egon zenik, ezta gutxiago ere, eta hemendik hamar urtera egongo den Marik ez du jakingo. Hortik ere abiatzen da pelikula. Ez da egin memoria ariketa hori, eta ez dakit zergatik. Guk, pelikula egiterakoan, atzera begira jarri behar izan dugu nahitaez, eta oso baliagarri egin zaigu ezagutza hori jasotzea. Eta nolabait ere, baliagarri egin zaigu sinisteko eta indarra emateko oraingo gaztetxeari. Ez dakit, bultzada ematen dizu jakiteak zer gauza egin ziren lehen jarduna aurrera eramateko leku egonkor bat eskuratzearen alde. Orain badaukagu leku hori, baina esan-



dakoa, ezer gutxi dakigu iraganaz. Eta azkenerako, leku horren iraganaz ezer gutxi dakizun etxe batean sartzen zara. ◀

“ ”

Bultzada ematen du lehen zer egin zen jakiteak; oraingoa indartzen du”

Informazioa biltzeko izan dituzte bidelagunak, asanbladako kideren baten gurasoak ere izan zirelako garai batean partaide, eta espero gabeen ere, ondorioztatu dute, taberna guztietan aurki daitekeela asko dakien bat. Filmean ere egiten da halako erreferentziarik: “Egiten ari garen proiektio guztietan ari gara komentatzen, gu aurrez ere ez baikara hain kontziente izan: *ziur zuen herrian*

ere badaukazuela 'Txator' moduko pertsona bat, agian ez halako ergela, baina ziur istorio pila bat dakizkiela”.

Ziur, beraz, Oñatiko Txator bezalakorik aurkituko dutela Elorrión, Burlatan, Altsasun, Olaztin, Donostian zein Bilbon besteak beste, aukera asko izango baitira filma ikusi eta edukiaz hitz egiteko. Jakin badakite dokumentala egin izan balute ateak mugatuagoak izango zituztela, eta zorteko direla beraz, Deba-goienatik irten eta agian Madrilera eta Bartzelonara ere joateko moduan izango direlako; izan ere, itzultzaile den lagun bati esker, katalanera eta galizierara ere itzuli nahi dute filma.

Aurkeztuko duten herrietan espero dute hausnarketa egiteko ahalegina ikustea, Oñatin kokatu izanagatik ere, jorratzen diren gaiak gaztetxe guztietan eman daitezkeelako; izan ere, finean, iraungitzen ez diren hainbat kontzeptu barnebiltzen baitira: antolakuntza eta borroka, eta iraganeko jardunaren memoria, aitortza egiteko ondoren. ●



Grabazioetako hainbat irudi. 2022ko uztailean egin zituzten grabaketak. Argazkiak: Propio utzitakoak

HILEKOA EUSKAL HERRIKO LITERATURAN II

Odola darie irudiei

Odola dario literaturari artikuluan euskal literaturan hilekoak bete izan duen tokiari erreparatu genion, aztertzeko nola irudikatua izan den. Artikulu haren segida da honakoa, baina fokua pixka bat zabalduta: testuaz gain irudiak ere barne hartzen dituzten lanei erreparatuko diegu, hilekoak euskarazko komikietan eta liburu hibridoetan hartu duen tokiari eta irudikapenari erreparatzeko.

 AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Harrituraz begiratzen ditut telebistako iragarkiak. Hilekoari buruz idatzi nuen aurreko artikulutik hona aldaketa bat gertatu da panoraman. Lehen odol urdindunek soilik isurtzen zuten odola telebistaren unibertsoan. Tanpoi eta konpresa marka ezagunek urdin koloreko isuria erabiltzen zuten beren produktuen erresistentziaren eta kalitatearen gorenaz azpimarratzeko, eta guk odola irudikatu behar genuen. Garbitasuna, disimulua eta “hilekoa edukiko ez bazenu bezala” jendaurrean aurkeztea dira iragarkion lema eta bandera. Diskurtsoa ez dute aldatu. Baina orain errazagoa da odola irudikatzea, izan ere, kolore urdineko likido hori gorri kolorekoagatik ordezkatu dute zenbaitek.

Estrategia kapitalista bat dela esan-got didazue batzuek. Eta arrazoiak duzue, bezeroak gerturatu eta dirua irabazteko estrategia izan daiteke. Baina hilekoa tabua den heinean, iruditegi txikia dugu gaiaren inguruan. Eta iragarkiek gure irudien mundua osatzen eta elikatzen dutenez, aldaketa proposa eta probetxuzkoa iruditzen zait.

Gure literaturan hilekoari buruz idatzi denaz aritu ginen honen aurre-

ko *Odola dario literaturari* artikuluan. Gaurkoan, aldiz, hilekoari buruz ditugun irudizko liburuak aztertuko ditugu. Alde batetik komikiak, eta bestetik, liburu hibridoak.

Komikiari dagokionez, esplizituki feministak eta kolektiboak diren lanetan aurkituko ditugu hilekoari buruzko aipamenak; emakume komikigileen lanak erakutsi eta mundu horretan dagokien lekua aldarrikatzeko pentsatutako lanetan hain zuzen ere. 1996an Napartheid aldizkariak argitaratutako emakume komikigileen antologia da *Aizan*. 29 emakumek hartu zuten parte eta hilekoari buruzko bi lan aurkituko ditugu bertan: Amaia Martiarturen *Regina dibina* eta Maria Magdalena, *jan iezadazu...* Biek dute txiste forma eta biek bilatzen dute irakurlearengan in-paktua eragitea. Egoera absurdoak izan daitezke, umorearen bitartez gaia gerturatzeko eginak. Apurtzaileak dira eta tonu feminista darabilte. Irudi guztiak txuri-beltzean eginda daude eta ez dira edertasuna agertu nahi duten irudiak.

Hirugarren aipamena *Tupust! 1* (2019, Txalaparta) antologian aurkituko dugu. Asko dira jorratzen diren gaiak, eta Miren Amuriza eta Eider Eibarren

eskutik datorkigu *Orbana* lana. Kasu honetan hilekoaren orban bat duen irakasleak hilekoa zer den kontatu behar die haurrei. Irakaslea heldua da, ez da edertasun kanonetan sartzen eta orbanaz lotsatzen ez den pertsonaia da. Argia, zuzena eta ahaldunduta dagoena. Aurretik aipatutakoak bezala, istorio hau ere umore klabearen pentsatua eta ekarria da, bestea zirikatze eta geure buruaz barre egiteko beharretik abiatuta, seguru-erik.

Lan hibridoak dagokienez, berriz, lau testu ikusiko ditugu. Lan hibridoak estu geratzen zaizkie genero literarioen mugak, eta ondorioz, genero literario bat baino gehiago nahasten dituzte. Sailkatzeko zailak diren arren, oso aberatsak eta aproposak izan ohi dira tabuei buruz hitz egiteko. Azpizgai interesgarri eta beharrezkoak planteatzen dituzte, eta bazterrekoagoak diren materialen erabilpena egiten dute, bazterrekoagoak diren gaiak lantzeko aukera emango balute bezala.

Alaine Agirre eta Sara Moranteren *Kamisoi zuri zetazkoa* (Erein, 2018) lanak hilekoa jaitsi berri zaion haur batek jasaten duen abusu eta bortxaketa baten salaketa egiten du. Hilekoak haur izate-

tik emakume izaterako muga adierazten du, zerbait aldatzen den momentu horren adierazle da. Hilekoa, emakumetzeara arriskua eskutik doaz kasu honetan. Album ilustratua da; testu narratiboak eta irudiek oso ongi osatzen dute elkar. Irudiak borobilduak eta iradokitzaileak dira, eta lehenengo begiratuan eman dezakeena baino gehiago kontatzen dute.

Antxiñe Mendizabal eta Iraia Okinaren *Emakume burugabea* (Elkar, 2018) lanak poesia eta irudia nahasten ditu. Ahalduntze prozesu baten kontakizuna da, protagonistak bere barrura eta askatasunera egiten duen bidaia. Gorputza orokorrean, eta hilekoa zehazki, bere buruaz erditzeko medio dira protagonistarentzat. Askatasun abesti bat da, lirismoz betea. Irudietarako gorriaren eta marroiaren arteko gamak erabiltzen ditu Okinak, eta hilekoa esplizituki marraztu ez duen arren, gorputz biluzia, alua eta plazerra antzeman ditzakegu.


Txakur Gorria kolektiboak 2017an autoekoitzitako *Hizteria: eskuko hiztegia* liburuan asmatutako hitzen asmatutako definizioak aurkituko ditugu. Ane Labaka, Nerea Ibarzabal, Mariñe Arbeo eta Malen Amenabarren lehen sorkuntza kolektiboa da. Jolasetik eta jolaserako pentsatua, idatzia eta ilustratua. Hiperbolea eta umorea lagun hilekoa hiru hitzetan erabiltzen da: definizioan edo definizioaren adibideetan. Eta esplizitua den irudiak umorea eta errealitatea nahasten ditu.

Uxue Alberdiren *Dendaostekoak* (Susa, 2020) liburuak ez du irudirik, arrazoi duzue. Baina sailkatzen zaila den lana da. Autobiografia kolektiboa dela diot nik, kronika literario bezala sailkatzen du Alberdik, eta bi etiketak balio dute. Nahiz eta bi etiketak diren estu. Bi ahizpen denda aitzakia gisa hartuta, ahizpa horien bizitzaren eta garaiko gertakarien nondik norakoak kontatzen dira lehenengo pertsonan. Hilekoari buruzko pasarte hau dago liburuan: *Konpresarik eta tanpoirik ez zen garaian, andreok trapuak baliatzen zituzten hilekoa biltzeko, garbitu eta berrerabili egiten zituzten. Ni baino hamabost urte zaharragoak ziren bi andreok ibaiaren hegi banatara bizi ziren. Klean topo eginda, "esperoan al zaude?" Galdetu dio bata besteari,*

eta hark izututa: "Nolatan dakizu? Ez diot inori esan!". Leioa seinalatu dio lagunak: "Trapurik ez...". Garaiko baliabide higieniko ezberdinak bistaratzeaz aparte, pasarte horrek xehetasunez erakusten digu hilekoaren inguruko kode kulturala. Liburu berarekin jarraitu eta bukatu nahiko nuke artikulua. Arropak eskegitzeko moduz zera esaten du beste une baten: *Berak erakutsi zigun (...) hurrenkera egokian esekitzen arropa garbitu berria: maindireak kanpo aldera, barrurago toallak, galtzak eta alkandorak, eta leiho-kontra, babesean, arropa txikia, intimoa (...) Susmagarria zen bularretakoak lehen lerroan zabaltzen zituen andrea.* Hilekoa lehen lerroan esekitzea bezain susmagarria, gehituko nioke nik.

Publizitateak kolore gorria barneratu du, baina argi dago mezu berbera azpi-

marratzen jarraitzeko soilik egina dela. Dena den, egia da hilekoa kontatu, aipatu eta esplizitatu nahi izan duten hainbat autore eta lan ikusi ditugula, eta hala ere, hutsuneak ditugula: falta zaizkigu menopausiari buruzko lan gehiago, hilekoaren minari buruzkoak, odolarekin bizi izandako pasadizoak, kopa menstrualua izendatuko dutenak, odolarekin eta sexuarekin lotutako anekdotak, begirada espiritualak duten odolaren kontakizunak, hilekoa modu gozagarrian eta hilekoa modu traumatikoan galdu duten pertsonaien ahotsak... Hautsak harrotuko dituzten hilekoaren inguruko istorio eta irudi gehiago behar ditugu. Bularretakoak lehen lerroan zabaltzea eta odola zipriztintzea. ●





LIBURUA

Gauzen politika deszifratzeko poetika



DANI BLANCO

GARI ETA GOROLDIOZKO

ANARI ALBERDI SANTESTEBAN

SUSA, 2022

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Gauzek politika egiten dute Anari Alberdi Santestebanen lehenengo lanean. Agian merezi du zehazteak: narrazioetan zehar gauzek politika egiten dute, ez metaforikoki, aski literalki baizik. Susak argitaratutako *Gari eta Goroldiozko*-kon gauzak ez dira bizi ustez gizakiona den munduan. Gauzak ez dira gureak. Alderantziz, gu bizi gara haienean. Gu gara haienak.

Estoldetarututako medikazioen ibilbide zirkularraren eta itsasoratutako plastikozko poltsen eragin planetarioen ondorio gara. Mugitzen gara autobusak izeneko kapsula geopolitikoetan eta mugitzen gaituzte langilea ordezkatzeko automaten errepideetan. Eta gu “hainbeste orduero entxufe bat behar dugun animaliak gara”.

Kafearen hurrupa bakoitzean barnebiltzen da mendeetako konkista eta sarraski koloniala. Eta azken krisi ekonomikoa itxarazitako denden eskapateetan irakurtzen da. Zabor kamioi desiratzailena da gaua eta “ganbarako gauzak bilakatu ziren etxekoan memoria”.


Hori guztia istorio ximple batean. Telefono dei bat. Dei horrek eragiten duen *road trip*-a goroldiozko Euskal Herritik garizkora. Eta helmugan familia-etxearen hustutzea. Istorioa baina, ez da agian garrantzitsuena.

Produktzio sistema kapitalistaren begirada antropozentrikoa, androzentrikoa eta inperiala da etengabe azaleratzen dena ekintzarik txikienen deskribapenetan. Eguneroko objekturik mundutarretan kondentsatzen dira gurutzatzen

gaituzten botere harreman guztiak. Horixe da *Gari eta Goroldiozko*-kon gauzak begiratzeko moduaren poetika.

Gutxienez, Karl Marxek egurrezko mahai ezaguna hankaz gora jarri eta dantzatu arazi zuenetik garatzen joan den begirada da Anari literaturara ekarri duena. Da begirada bat Donna Harawayk garatu egin zuena denon ziborg izateaz jardutean. Begirada bat da gauzak eta gizakiek elkarbanatzen dituzten korapilatutako historietan sakontzen duena.

Ez da gutxi inolaz ere: boterea era ezberdinean pentsatzea ahalbidetzen digu narrazioetako begirada materialistak. Horixe da liburuaren poetika: gure zapalkuntzak sentitzeko kartografia literario eraberritua. ●



MUSIKA

Arimaz beteriko egitaraua



FITXA

Euskal Herriko Gazte Orkestra eta Euskal Herriko Gazte Abesbatza.

ZUZENDARIA: Rubén Gimeno.

EGITARAUA: Grieg, Sibelius, Vaughan Williams eta Sorozabalen lanak.

EGUNA: Urtarrilaren 2a.

LEKUA: Donostiako Victoria Eugenia Antzokia.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO) 25. urteurrena ospatzen ari da. Harrobiko urte hauetan bilakaera interesgarria ikusi dugu. Izan ere, gero eta gutxiago harritzen gaitu talde horren kalitateak, gero eta gehiago espero baitugu. Eta EGOk ez du inoiz huts egiten.

Neguko bira honetan eskainitako programa arretaz aukeratu dute, bizitzaren ari garen garaian zentzua izan zezan. Eta nik aipatzen nuen interpretazio-bilakaera hori erakusteko ere bai.

Kontzertua Edward Grieg norvegiarraren *Peer Gynt* ederrarekin hasi zen. Egia esan, konposizio hau Henrik Ibsen norvegiarraren antzerki-obra baten zatitza konposatutako musika intzidentala da. Baina partiturak hainbesteko arrakasta izan zuen, ezen konpositorak zati batzuk atera eta bi suitetan biltzea erabaki baitzuen. Orkestra-koloreko miraria da, melodia-inspirazio

handikoa, Griegen ukitu folklorikoaz tindatua. EGOk kideek ondo baino hobeto jakin zuten Rubén Gimeno zuzendariak emandako ñabardura guztiak itzultzen. Interpretazio sinple eta koloretsua izan zen.

Ondoren, Jan Sibeliusen *Finlandia* obra nazionalista eskandinaviar handienetako bat interpretatu zuten. Lanak zazpi minutu inguru irauten du, eta ia luze-zabalean erritmo eta estilo zurrumbilotsuan garatzen da, orkestra-karga handiarekin, finlandiar herriaren zapalkuntza eta borroka sinbolizatzen du, itxaropenezko ereserki batekin amaituta. Pieza hau arrazoi aberkoiekin konposatua izan zen, Errusiar Inperioaren gobernuak finlandiar autonomia deuseztatzearen aurkako herri oposizioa mugiarazteko. Tsaristen zentsurari iseka egiteko jaso zituen izenburu ezberdinak ospetsu egin ziren, horien artean

Sentimendu zoriontsuak Finlandiako Udaberriko Egunsentian. EGOk bertsio bizia egin zuen, ñabardura handirik gabea, baina erritmikoki oso zuzena.

Egitarauak Vaughan Williamsen lan koral handienetako batekin jarraitu zuen: *Towards the unknown region*, Euskal Herriko Gazte Abesbatzak protagonismoa izan zuen inspirazioz beteriko obra. Izpiritu handiko interpretazioa eskaini zuten, dudarik gabe.

Eta Pablo Sorozabalen *Gernika* oratorio dramatikoarekin amaitu zen kontzertua, hiriaren gaineko bonbardaketen izugarrikeria gogoratuz. Musikagilearen jaiotzaren 125. urteurrenean, obra hau ezin zen falta. Euskal Herriko gazteen koro eta orkestraren interpretazioa bizia izan zen, eta ñabardura nabarmenez bete.

Bis bezala, gabon kantak ezin ziren falta. Alaitasun hutsa. ●



Eu tamén choro

 IÑIGO SATRUSTEGI

Nostalgikoak Gasteizen, queerrak Atarrabian eta gu, (dei gaitzake-zue moderno, ez naiz ezkutatu) Donostian. Urteak neramatzan Baiuca zuzenean ikusi nahian. Azkenean gerturatu da Euskal Herrira, eta ez nolanahiko areto batera. Orain arte ikusi ditudan kontzertu onenetako batzuk Dabadaban izan dira. Galiziarrak espektatibak goian utzi ditu emanaldi aurreko uneetan. Aretoa lepo, baina dantzarako leku nahikoa. Plaza bero dago, entzuleak gogoz.

Galiziako folka eta elektronikaren *beat* leunak nahasten ditu eta ez nekien oso ongi zer espero. Bandarekin azalduko zela bagenekien, baina nola aurkeztuko zuen zalantzak nituen: zer izango da zuzenekoa eta zer alde aurretik grabatua eta ordenagailutik *pintxatutakoa*?

Baseak, melodiak eta ahotsetako batzuk izan dira oinarrian, eta beste hiru kideek lagundu diote perkusioarekin eta ahotsetan. Soinu sintetikoaren gainetik erritmoak osatzeko erabili dituzte pandero bat, beste bat erraldoia, txapa, aitzurra, zartagina baita bieira maskorak ere. Tradizioa eta gaurkotasuna bat eginik.

Hori da hain zuzen buruan bueltaka geratu zaidan ideia nagusia: errespetutik eta miresmenetik, tradizioa mantendu, eta are gehiago, iraunarazi egiten du Baiucak. Eta sentsazioa dut ez duela folklorea bere horretan erromantizatzen. Funtzionatzen du, eta oso ondo gainera. Aretoa ikustea besterik ez dago: *sold out*, eta dantzaka, kantuka dena ematen ari diren ikusleak. Galiziatik ehunka ki-

lometrora, galegoz euskaldunak. Bada esperantzarik.


Arreta eman digu, hala ere, abeslariaren atzean bigarren planoan geratu dela askotan DJa. Ohituegiak gaude agian zentraltasuna abesten duenari ematen, eta lagun bat ausartu da Bizarrapek egiten duenarekin konparatzera. Baina tira, abestiak joan eta etorri, heldu gara amaiera aldera. Espero moduan hortxe zituen gordeak abesti ezagunak, eta momentu horretan segitzen dut oraindik... *Eu tamén choro* kantatzen, muñeiren txilioekin edo sugearen pozoia sorgindurik. Ez nekien zer espero, baina uste dut haiek zirela benetan hain harrera beroa espero ez zutenak. Eskerturik, itzuliko direla agindu dute. Eta gu han izango gara hurrengo hartan ere. ●

BAIUCA

NOIZ: urtarrilak 6

NON: Dabadaba aretoa (Donostia)

Gurutzegrama




EZKER-ESKUIN:

1. Ezer ez duena, behartsua. / Ezain, itsusi. **2.** Bits. / Lilura. **3.** Ilerik gabeko zati. **4.** Gainerako, gaingiko. **5.** Lekaime, serora. / "Hala bazan edo ez bazan sar dadila ...". **6.** Bi gehi bat. / Zentzatzerá behartu. **7.** Besaurreko kanpoaldeko hezur luze. / Larruazalean sortzen den geruza. **8.** Leqoa. / Gezurrez.


GOITIK BEHERA:

1. Etzeko erregea. / Heidu aditzaren infinitiboa. **2.** Ornodun urlehortar. / Mirespena. **3. Nafarroa Behereko udalerria (argazkian).** **4.** Ordulariak. **5.** Okela biltzen duen mintza. / Lehen musika nota. **6.** Altxa! / Ihia. **7.** Manikeismoaren jarraitzailea. **8.** Zutik. **9.** Tulioaren sinboloa. / Nafarroako herria. **10.** Mendebaldean, zen. / Larru. **11.** Joan den gauean. **12.** Nafarroako udalerria. **13.** Zorro handi. **14.** Barazki mota (pluraleran). **15.** "Peruren sabel bateak ez dizkit... betetzen hesteak",

Sudoku




ZAILA



Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERA DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
BESTELAKO HURRENKERAN.

Lehiaketa
Martxo
Azao
Omena, sona
Urrats
Bete
Prezio, balio
Aspertu, gogaitu
Kirikino, sagarroi
Gorantz zuzen
Nekatu
Euskal jaka
Egoera estua


[illegible]**EBAZPENAK**

ETXEAN PERTZ ASKO ETA
BEHIAK ESNERIK EZ.

ATSOITZITZA



ZAILA



ERRAZA

ESKEE-ESKUIIN: 1. GABEEL, MOTZ, 2. KARAR, XARMA,
3. SOIGUEEN, 4. GOITIKO, 5. MOJA, 6. KALABAZAN, 7.
FALTUSKI,
8. LAIKOA, 9. ZENTZARAZI, 10. ERRADIO, 11. ZARAKAR,
12. ARAZ, 13. ZAKU, 14. AZAK, 15. NIRI,
16. BART, 17. ARAS, 18. ORREKAN, 19. TOLZA, 20. AZAL,
21. MANIKOE, 22. ERIOJUAN, 23. GAI, DO, 24. XUT, ZIA, 25.

Arrate Rodríguez Martín

@ARRATERODRIGUEZM



BILBO IKASTOKI

Ikasketak egin nahi zituela argi zuen, ez, ordea, zer. Psikologia, itzulpengintza, ingeles filologia... denetarik zegoen aukeren zerrendan. Donostiako fakultatea "oso grisa" iruditu zaitzaion. Bilbora iritsi, eta Arte Ederren fakultatearekin maitemindu zen. "Dena arrosa eta argitsua ikusi nuen. Zerrendan azkena nuena, lehena izatera pasa zen", aipatu digu irriz. Berehala maitemindu zen, gainera, "Bilboren zikintasunarekin". "Etxetik trenetaz bost ordu urrundu nintzela zirudien. Beste zerbait da Bilbo. Beste mota bateko jendea, eraikinak... Natura maite dut, nire etxea ikusi besterik ez dago, baina hiritarra naiz", dio landarez beteriko etxeko sukaldean, kafea eskuan duela.

"Ez zaigu bururatzen okinariogia urririk eskatzea"

Etxean hartu gaitu, eta berak ezetz dioen arren, artista baten etxera sartu izanaren sentsazioa ematen du; sentsazio goxo eta atsegina da. Hendaian bizidun errenteriarra da Arrate Rodríguez Martín, eta bere esanetan, ez da ez artista, ez ilustratzailea, ez zeramikalaria, ezta collage egilea ere, baina hori dena egiten du. Ilustrazioa bigarren planoan uztearen aroa amaitu beharko litzatekeela dio; irudiak testua elikatzen duen gisan, testuak ere elikatzen duelako irudia.

 AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ  IRANTZU PASTOR

"Ilustratzailea naiz baina ez soilik", esan didazu.

Gauza asko maite ditut eta gauza asko egiten ditut. Oso galdera zaila da, edo kosta egiten zait erantzun zehatza ematea. Bat edo bestea erantzun ohi dut galdetzen naue-naren arabera. *Freelance* izatearen kontua oso nekagarria da. Lanik ez dagoenean lan bila aritzen gara, eta askotan gertatzen zaigu lan asko ukaitea epe laburrean.

2018. urtean, Mariana Enríquez-en *Las cosas que perdimos en el fuego* (Sutan galdu genituen gauzak) irakurtzen ari nintzela, erabaki nuen ilustrazioan sakondu eta nire ogibidea horretara bideratu nahi nuela. Geroztik horretan saiatzen naiz. Orain, adibidez, Rosa Valverde zenaren harira, album ilustratu bat amaitu berri dut Maialen Lujanbio-rekin. Ilustrazioa aipatzen denean haur literaturan pentsatzen dugu bereziki, baina helduen munduan ere badago lana.

Booksterrak ere egin dituzu.

Pelikulen posterrak egin eta etxetan jartzen diren bezala, nik libu-

ruetan oinarriturikoak egiten ditut. Badakit zaila dela liburu batek niri eragin didan antzeko sentsazioa eragin dion norbait topatzea. Ez ezi-nezkoa, ordea. Eta lortzen denean, oso polita da. Liburuarekiko maitasuna partekatzea da funtsa.

Gauza asko egiten dituzu, hortaz.

Ez da bidezkoa ilustratzailea bakarri naizela esatea. Zeramika ere hasi naiz egiten. Nire meditaziorako momentua eta tresna topatu ditut bertan. Gainera, gauza erabilgarriak egitea erabaki nuen. Momentuz oso sorkuntza gutxi saldu dut, baina orain egun batzuk, neska batek idatzi zidan niri erositako objektu batean egunero gosaltzen duela esanez, eta sekulako ilusioa egin zidan. Hori magia da niretzat.

Nola heldu zara honaino?

Arte Ederrak ikasi nituen Bilbon, eta gerora Bartzelonara joan nintzen Ilustrazio Sortzailea ikastera. Ez nuen argi ikusten nondik jo, baina bete-betean asmatu nuela esango nuke. Ogibide batzuk oso zehatzak dira eta gurea, aldiz, ez. Gurea oso



"Ni feminista naiz baina ez dut ilustrazio feminista egiten. Bizitzeko modu feminista agerrarazten ahalegintzen naiz".

zabala eta askotarikoa izan daiteke. Gustuko dut aukeraketan libre eta emaitzarekin pozik sentitzea. Ilustrazioan zein iruditerian aritzea ez da zerbait finkoa, eta irudiz beteriko mundu batean bizi gara, edo guk betetzen dugu irudiz. Nire iritziz, ilustratzailearen funtzioa da mundua modu batera irudikatzea eta erreferenteak sortzea. Nik neure ikuskerarekin sortzen ditut irudiak.

Zein da zure ikuskera?

Feminista naiz baina ez dut ilustrazio feminista egiten. Bizitzeko modu feminista agerrarazten ahalegintzen naiz.

Zenbatetan eskatu izan zaizu urririk lan egitea?

Askotan. Beno, gehiegitan. Zenbatek esan ote didate irudi bat sortzeko sustapenaren truke. "Azokan ezin dut sustapenarekin ordaindu" esatera iritsi naiz azkenean. Oso borroka astuna da. Asko eztabaidatu dut horren harira. Esango nuke, ezezkoak ematearen poderioz lortu dudala jendeak musutruk egiteko ez eskatzea. Jada esango nuke ez zaiela bururatu ere egiten. Neure buruari gogor egin nion, ezezkoak ematen hasi behar

nuela esanez. Neure burua eta nire lana errespetaraziz, azkenerako, nire ogibidea delako. Nik ez dakit beste zerbait egiten.

Egunero egin dut lan, lanaldi arrunt batean baino ordu gehiagoz. Eta hori onartua dut, nahiz eta pentsatu ohi dadan: "Ea noiz errespetatzen gaituzten". Okinari ogia urririk eskatzea ez zaigu bururatzten. Jendeari gogorra egiten zaio alderaketak egiten ditugunean, baina halaxe da.

Baduzu esperientzia atzerrian ere, berbera gertatzen da?

Mexiko ezagutzen dut bereziki. Eta bertan, behintzat, askoz gehiago mugitzen da artea. Gure bizimodu antzekoa egiten duen jendeak badu artea erosteko ohitura, esaterako, kopia ttipiak edota kolekzio xumeak erosi eta etxean jarri. Hirugarren mundua deitzen diogu gainera! Han askoz prekarioago bizi direla? Bai. Bi edo hiru lan behar izaten dituztela bizimodu aski normala egiteko? Ere bai. Baina lanari sekulako errespetua diote. Artistaren lanari ere bai. Eta urririk eskatze hori ez dago hemen bezala garatua.

Zer behar izaten duzu sormen prozesuan?

Pintatzeko lasai egon behar dut. Presiorik eta presarik gabe jardun. Marrazteko edo beste zerbait egiteko, agian, presak ez nau hainbeste trabatzen; pintatzeko, aldiz, patxada behar dut. Kontzentrazioa eta lasaitasuna uztartu behar izaten ditut. Hala ere, etengabe ari naiz pentsatzen. Dutxan, esate baterako, ez naiz lanean ari, baina soluzio bat ala bestea gogoetatzten aritzen naiz. Denboraren eta konfiantzaren arteko orekan errazagoa egiten zait sorkuntza prozesua.

Presak harrapatutakoan trukorik bai?

Esperimentatzeak funtzionatzen dit. Akrilikoekin ari banaiz, argizariak hartzeak balio dit. Album ilustratuak egitea oso aberasgarria da profesional eta pertsona gisa, baina oso neketsua, eta soilik ikuspuntu ekonomikotik begiratu, apenas ematen duen ezer. Baina hor ere oreka topatu beharra dago. Azken batean konpentsazioa ez delako soilik ekonomikoa, ezta? Denbora ere erlatibizatzen ikasi behar da. Baina presa ez da inoiz lagun on bat. ●

Guraso horiek

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Bihotzeko hegoak erortzen zaizkit –Bizenta Mogel parafraseatuz–, etorkizunaz pentsatzen hasten naizen bakoitzean. Baina ez da ezagunak zaizkizun eta, ziur aski, zuri ere animoa hondoratzen dizuten makrokausengatik bakarrik. Horien azpian badira mikroetsipenak eragiten dizkizuten fenomenoak ere, egunero-egunero sumatzen dituzunak, azkazalen azpian sartutako orratzak legeztu.

Uste dut autobus-geltoki batean izan zela nire lehen kontaktua haietako batekin. Gero etorriko zen supermerkatu hartako pasilloan entzun nituenekoa. Eta azkenaldian nonahi daude: parkean, noski; baina baita tabernako komuna libratu bitartean sortu den ilaran; edo liburutegi publikoan. Haiekin topogiten dudan aldiro, sabaira begiratzen dut, kamera ezkuturen bat ote dagoen edo zer. Gero jabetzen naiz kamera ezkutua erabiltzen duten telebistako programak oso gauza zaharrunoa direla eta beraz, egoera onartzea besterik ez zaidala geratzen: bai, guraso horrek, hemengoa izan arren, bere haurrari ingelesez hitz egiten dio.

Niretzat espezie nahiko ezezaguna direnez, pixka bat sarean trasteatu ondoren bakarrik konturatu naiz gauzaren dimentsioaz. Webgune espezializatuak eta guzti dauzkate, haurrei ingelesez hitz egiten hasteko momentua “zenbat eta lehenago hobe” dela azaltzen dietenak, haurdunalditik bertatik egosten ari den oinordekoari ingelesezko kankak jartzera animatuz.

Pentsatzen dut denetik egongo dela horrelako zerbait egitea erabakitzen duten gurasoen artean. Egongo da asko kostata ingelesez ikasi ostean hurrengo belaunaldiari lana pixka bat erraztu nahiko dionik –autobus geltokikoari horren tankera hartu nion–. Eta egongo da ingelesean, hizkuntza bera baino,



bere haurren igogailu soziala ikusiko duenik –parkekoa, dudarik gabe, talde horretakoa zen–. Baina, dena dela, niri *weird* samarra iruditzen zait, *awkward* ez esateagatik.

Zeren aber, erabakiak bere ondorio positiboak izan ditzake kreatura txikiarentzat, noski: hamar urte betetzen ditueneko bikoizketarik gabe ikusi ahalko du bazkaritan molesta ez dezan entxufatzen dioten pantailako edozein pelikula. Are gehiago, ingelesa ikasi dezan, gurasoek *hitz egin* beharko diote haurrari eta hori aurrerapen handia da, dudarik gabe, umeei batere hitz egiten ez dieten gurasoen aldean.

Baina balantzaren beste aldeari ere erreparatu behar zaionez, ez dakit ez ote dagoen joera horren atzean gurasotasuna ulertzeko modu jakin bat, gurasokeria gisa ere definitu daitekeena: umeengan produktu gisa pentsatzea, zeinak ondo tuneatuta utzi behar diren

heldu izatera iritsi aurretik, konpetizio sozialean *citius*, *altius*, *fortius* izan daitezen, eta ez auzoko beste edozein mindundiren seme-alabak bezalakoak bakarrik.

Asuntuaren belozidadea ere kontuan hartzekoa da. Ez da horrenbeste denbora pasa –zer dira ba hamaika urte– Constantin Costa-Gavrarek *Le Capital* filmean banku handi bateko buruzagiaren anbizioak erretratatu zituenetik. Besteak beste, protagonistak “*in English!*” oihukatzen zion frantsesez erantzuten zion semeari. Orduan goi-goiko klaseen estrabagantzia gisa irudikatzen zena, orain oso jende arruntak egiten du. Aspaldi esplikatua da zergatik, baina errepikatzea ere ez dago soberan: “Garai guztietan klase nagusien ideiak izaten dira ideia nagusiak”. Aipua ingelesez bilatu beharko dut, martxa hone-tan irakurle batzuek errazago ulertuko dute-eta horrela. ●



ATXEGA JAUREGIA

JATETXEA

AITZEZARRA KALEA 1 USURBIL, GIPUZKOA
943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

**EUSKAL NOBELA
BELTZAREN ASTEA
BAZTAN
2023KO ILBELTZAREN
23TIK 29RA**

LAGUNTZAILEA :



**IL
BEL
TZA**

ANTOLATZAILEA :

